

LABURPENA

Eusko Legebiltzarrarentzako urteko txostena 2023



ararteko

Herriaren Defendatzailea · Defensoría del Pueblo



Lan hau [Creative Commons](#)

[Aitortu 4.0 Nazioartekoa](#) (CC BY 4.0) lizentzian dago

ARARTEKO

Vitoria-Gasteiz, 2024

Diseinua, maketazioa eta imprimaketa: Editorial MIC

ISSN-e 3020-4615

www.ararteko.eus

AURKIBIDEA

00. Aurkezpena	2
01. Arartekoaren jarduera zenbakitan	4
02. Jarduerak	6
03. Azterlanak	16
04. Erakunde adierazpenak	20
05. Beste jarduera batzuk	22
06. Haur eta nerabeentzako bulegoa	28
Informazio interesgarria	30



Manuel Lezertua Rodríguez
Arartekoa

Berdintasuna nahitaezkoa da gizon-emakumeen arimarentzat. Begirune eta arreta berbera zor zaio gizaki orori, begiruneak ez baitauka mailarik.

– Simone Weil, filosofo, ekintzaile eta politikari frantziarra

2023an berriro areagotu egin zen Arartekoaren jarduerara, guztira 13.602 jarduera burutu baitziren; horietatik 8.200 inguru Arartekoaren arretarako kanalen bidez jasotako kexak eta kontsultak dira. Hazkuntza bereziki nabarmena izan zen izapidetutako kexa-espeditenteei zegokienez, ia 3.900 eta, hortaz, ia %37 areagotu.

Era berean, Arartekoak ofiziozko 26 espediente hasi zituen.

Kasuetatik ia %89tan, eragindako administrazioak zuzendu edo aldatu egin du kexa sortarazi zuen jarduera.

2023an nabarmen gutxitu zen Arartekoarekin lankidetzan aritzeko uzkuratasuna agertu zuten administrazioen kopurua. Hala ere, zenbait jarrera azaleratu dira, eta jarrera horiek, eragina dute legeak erakunde honi eman dion babes-ekintzaren eraginkortasunean. Berziki kezkarria da administrazio batzuek errekurtsio judizialak tartean daudela argudiatzea erakunde honek arrazoi bidez adierazitako irregulartasunak zuzentzea saihesteko edo bere gomendioei aurka egiteko. Arartekoak administrazio setati horien jarrerak salatzen jarraituko du, izan ere, jarrera hori erakustea, praktikan, Eusko Legebiltzarrak hain zuzen herritarren eskubideak zaintzeko sortu zuen erakunde honekin lankidetzan aritzeari uko egitea da. Dena den, 2023ko balantzea positiboa da, oro har.

Joan den urtea garrantzi handiko gertakari batek markatu zuen: “Legeen geroa / El futuro de las leyes” mintegia egin zen. Mintegi horretako hausnarketak eta ondorioak oinarritzat hartzen ari dira erakunde-erreformarako proposamen bat prestatzeko. Bertan, ikuspegi moderno eta eguneratua azalduko du gai honetaz: nolakoa izan beharko lukeen XXI. mendeko Arartekoak.

2023an Arartekoak bi azterlan argitaratu zituen: “Diskriminazioa eta diskriminazioaren aurkako politika publikoak EAEn” eta “Herritarren segurtasunerako bideozaintza Euskadiko eremu publikoan: oinarritzko eskubideen ikuspegitik egindako azterlana”.

Haur eta nerabeen eskubideak babestea etengabeko helburua da erakunde honen lanean. Nabarmentzekoa

da babesgabetasun arriskuari buruz egindako jarduera bat, geure kabuz hasia eta Estatuko gainontzeko herritarren defendatzaile guztiekin partekatua.

Osasun arloan, Euskadik lehen mailako eta bigarren mailako arreta-sarean tentsio handia zuela bukatu zuen 2023. urtea. Berriz adierazi beharra dago osasun-administrazioek beharrezko baliabide material eta giza baliabideak jarri behar dituztela osasun-eskubidea benetan ballatzea bermatzeko.

Euskal herritarren ingurumenean (eta, hortaz, beren osasunean) eragiten duten giza jarduerak eragin handia izan zuten 2023an Arartekoaren lanean; jarduera horien artean, kutsadura akustikoari dagozkionak dira nagusi. Adierazi genuen kontrolatu egin behar direla legeek ezarritako mugak gainditzen dituzten jarduera zatratsuak eta zarata-fokuak.

Aipagarria izan da Arartekoak justizia errestitatiboa bultzatzearen alde egin duen apustua erakundearen arteko lankidetzaren bitartez, nazioarteko mintegiak antolatuz eta horietan parte hartuz eta, Euskadin, hainbat eremutan, justizia errestitatiboa ezartzea ahalbidetuz.

Aurreko urteetan bezalaxe, erakunde honek arazo larri bati egin behar izan zion aurre: nahitaez aurretiko hitzordua hartu beharri; eta herritarrek kanal aniztasunerako eskubidea dutela adierazi behar izan zuten.

Arartekoaren nazioarteko proiektzioak bultzada aipagarria izan zuen 2023an, Estrasburgon Europako agintariekin egindako bileren bidez, haiek aitzindari baitira giza eskubideak babestu eta sustatzeko lanean.

Bukatzeko, Amnesty International-en adierazpen bat berdinuz, azpimarratu nahiko nuke egun bakoitza aukera ona dela hauxe gogoratzeko: gizon-emakume guztiek eskubide berberak dituzte eta aukera berberak merezi dituzte, alde batera utzita beraien generoa, arraza, jatorria, sinesmena, sexu-joera, adina edo bereizten dituen beste edozein ezaugarri. Eskubide horien artean dago administrazio ona, gertukoa eta kalitatekoa jasotzeko eskubidea.

ARARTEKO ERAKUNDEAREN BULEGOAREN JARDUERA, ZENBAKITAN


2023an zehar, **13.602** jarduketa egin dira guztira (aurreko urtean baino pixka bat gehiago); horietatik, **8.199 kexei eta kontsultei** dagozkie eta 26 ofiziozko espedientei. Idatzizko kexak 3.895 izan dira, eta horietatik 3.012 izapidetzeko onartu dira.

Zuzeneko arretaren bulegoetan guztira 9.488 zerbitzu eman ditugu. Horietatik, 4.278 hiru bulegoetako batean aurrez aurre aurkezturiko kexak eta kontsultak izan dira, eta 5.210 zerbitzu telefoniko bidezko aholkularitza eta informazioari buruzkoak izan dira.

2023an, 102 **bilera** egin ditugu gizarte-erakundeekin eta administrazio desberdinekin: Eusko Jaurlaritzako sailak eta zuzendaritzak, foru aldundiak, udalak eta beste erakunde batzuk. Gainera, Arartekoak aktiboki hartu du parte funtsean administrazioek, gizarte-erakundeek eta defentsa-erakundeek sustaturiko ekimenekin loturiko hainbat ekintza, jardunaldi eta ekitalditan; autonomia-erkidego eta estatu mailan zein nazioartean. 2023an mota horretako 91 jarduera izan dira. Era berean, Arartekoak Europara zein nazioartera begira garatu dituen 22 jarduerak nabarmentzen dira.

2023an zehar, **2.589** kexa-espeditente ebatzi dira, eta **1.540** ebazpen eman dira. Gainerako kasuetan, erabaki da kexak behingoan ez onartzea, bikoiztuta zeudelako, beste herriaren defendatzaile batzuei aurkeztu zitzaizkien-eta; ebazpen judizialaren zain zeudelako edo epai irmoa zutelako; auzibidera jo zelako, eta abar. Ke-

Arartekoari 2023an egindako kexak eta kontsultak



Arartekoaren jarduera guztiak 2023an

Kexak eta kontsultak	8.199
Informazioa eta aholkuak telefono zerbitzuaren bitartez	5.210
Laneko bilera administrazioekin eta gizarte erakundeekin	102
Kanpoko jardueretan parte hartzea	56
Nazioarteko eta beste defentsa-erakunde batzuekiko jarduerak	22
Ikuskatzeko bisitak	10
Jendearentzat irekitako jardunaldiak	3
Guztira	13.602

xa-prozeduren batez besteko iraupena 60 egunekoa izan da.

Kexa-espeditente horiek aztertuta, ikusi dugu horien **%53an** ukitutako administrazioak **oker jardun** zuela; ehuneko hori aurreko urtekoa (%47) baino handiagoa da. Kasuen %89an, ukitutako administrazioak erreklamazioa eragin zuen jarduna aldatu eta zuzendu du. Kasu gehienetan, Arartekoak ez du gomendio formala egin beharrik izan.

Kexek hizpide duten **gai-arloaren** arabera gizarte-bazterkeriaren aurka borrokatzeko bitartekoei loturiko erreklamazioak pixka bat igo direla antzeman dugu: 475 (2022ean, 458 izan ziren). Kexa-espeditente horietatik, %89 inguru **Lanbideren** funtzionamendu txararekin zerikusia daukaten arazoak dituzte hizpide, baita diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria kudeatzearen arloan burutu dituen jarduketekin loturikoak ere.

Izapideturiko kexa-espeditenteen **%46ak** lotura dute **gizarte-eskubideekin** (osasuna, gizarteratzea, etxebizitza, hezkuntza eta abar). Esanguratsuak dira ikasleak hezkuntzan onartzearekin zerikusia duten gaiak edo ingurumen-eremuko kutsadura akustikoari buruzkoak.

Halaber, kexetako asko arreta publikoko kolektiboetara buruzkoak dira, %7a baino pixka bat gehiago. Espeditente horietako askok (gizarteratze arlokoak barne) pertsona guztien **berdintasun erreala eta eraginkorra** bermatzeko politika publikoekin zerikusia dute, eta horien helburua da emakumeek, adinekoek, haur eta nerabeek, ezgaitasunen bat duten pertsonak, LGTB kolektiboak, immigranteek, ijitoek eta abarrek eskubide hori baliatzeko dituzten eragozpenak desagerraraztea.

Administrazio bakoitzari eragiten dioten espeditenteen proportzioari dagokionez, aurreko urteetan bezala, Eusko Jaurlaritza izan da idatzizko erreklamazio gehien jaso dituen erakundea 2023an (ia %58), eta

udalen jarduketei buruzko kexak pixka bat jeitsi dira (%31). %9ak foru-aldundiei eragiten die.

Nolanahi ere, espedienteetan ukitutako administrazioen jardunak ikertzeak ez du esan nahi jarduera okerrik egin dutenik, baizik eta erreklamazioak beren jarduketaren bat izan duela hipotesi.


ASEBETETZE-MAILA

Duela zenbait urte herritarrengana hurbiltzeko bideari ekin genion, Arartekoaren esku-hartzea eskatu duten pertsonen iritzia ezagutzeko eta eskaintzen dugun zerbitzua hobetzen saiatzeko. Horregatik, kexa-espediente baten izapideak amaitzen ditugunean, kexagileari galdera sorta bidali ohi zaio, nahi izanez gero eta izena ipini gabe, galdera batzuei erantzuteko eskatuz. Horrela, emandako zerbitzuaren gainean egiten duen balorazioaren berri izan dezakegu.

Emaitzak baloratzeko orduan, kontuan izan behar dugu, 2023an izapidetzen amaitu dugun kexa guztietatik, soilik kasuen %53an jo dela ukitutako administrazioak oker jardun duela.

Arartekoaren langileek **eskainitako arreta** nola baloratuko luketen galdetuta, herritarren **%77ak** uste du **“arreta ona edo oso ona”** izan dela.

Bideratutako espedienteen banaketa, eragindako administrazioen arabera



● Eusko Jaurlaritza	%57,65
● Toki-administrazioa	%30,87
● Foru administrazioa	%8,99
● Erakunde publikoak	%2,45
● Eusko Legebiltzarra	%0,04

Arartekoaren esku-hartzeari dagokionez (eskuragarritasuna, erakutsitako interesa, egindako izapideak), ia %70ak inguru uste du oso positiboa edo positiboa izan dela.

%80k baino gehiago Arartekora jotzeko gomendioa emango luke administrazioarekin edozein arazo izanez gero.


Gainera, Arartekoaren bi tresna giltzarriren inguruan galdetu dugu: **web-orria**, gure zerbitzuei buruzko informaziorako eta herritarrekiko elkarreraginerako oinarritzko elementu gisa (erabiltzaileen %74ak ezagutzen du), eta Arartekoaren **zerbitzuen karta**, kalitateari buruzko konpromiso guztiak eta erabiltzaileek erakundearekiko dituzten eskubideak biltzen dituena, bai eta horiek erabiltzeko modua ere (inkesta bete duten pertsonen %50ak ezagutzen du).

Emaitza hauekin ondoriozta dezakegu Arartekoaren zuzeneko esku-hartzea (alegia, erakunde honen jardueraren eta baliabide pertsonalen mende dagoena) dakarten arloei buruzko iritzia aztertzen direnean, positiboa dela egindako lanaren inguruko balorazioa.

Azkenaldian, era berean, Arartekoak ematen dituen zerbitzuei buruzko iradokizunen edo iritzien aurkezpena bultzatu da eta Zerbitzuen karta erreformatu da. 2023an 17 eskaera eta kexa aurkeztu dira.

Gainera, Zerbitzuen kartaren erreforman, Arartekoaren informazio publikoa eskuratzeko eskubidea eta datu pertsonalak babestearekin loturiko eskubideak baliatzea xertatu dira. Esparru horretan beste 39 eskaera aurkeztu eta izapidetu dira.

Administrazioarekin arazoak dituen norbaiti Arartekora joateko gomendatuko zenioke?



ARARTEKOAREN IRADOKIZUN BATI JARRAIKI, EUSKO JAURLARITZAKO GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILAK HOBEKUNTZAK EGINGO DITU TALDE AHULENTZAKO BONO DIGITALA EMATEKO PROZEDURAN



Herritar batek Arartekoari azaldu zionez, Eusko Jaurlaritzak agian arbitrariotasunez jokatu zuen talde ahulentzako bono digitala emateko orduan, eta ez zegoen ados jokaera harekin. Adierazi zuenez, “bono digitala” izeneko laguntza eskatu zuen, Internetarako konexio-zerbitzuaren fakturan murrizketa baten onuradun izateko. Gero, bere eskaera onartzeko ebazpena jaso zuen, baina konturatu zen beretzat ez zela onuragarria aurrez onartutako laguntza hura jasotzea, izan ere, horretarako, alta eskatu behar zuen laguntzen programarekin lankidetzan ari ziren komunikazio-operadoreetako batean eta, hortaz, zigor ekonomikoa ekarriko zion orain daukan kontratua ezeztatzeak.

Arartekoak, laguntzak arautzen dituen araudiaren eta kexagilearen aldeko ebazpenaren argitan, ez zuen arbitrariotasunik ikusi administrazioaren jardueran. Hala ere, kontuan hartuta aztertutako xedapenak eta egindako laguntza-eskaerei sail horrek emandako erantzuna, hobetu beharreko zenbait alderdi antzeman zituen laguntzak emateko prozeduran.

Zehazki, Arartekoak egiaztatu zuen laguntza horren bidez interes publikoko xede bat lortu nahi zela, hain zuzen ere, talde ahulen arrakala digitala murriztea. Horregatik, egokia iruditu zitzaion hausnarketa bat iradokitzea gai honen gainean: zer ekintza izan daitezkeen egokiak pertsona ahulak artatzen dituzten zerbitzu publikoen artean bono digitalari buruzko laguntzak daukela ezagutarazteko.

Puntu horretaz hain zuzen ere, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak Arartekoari jakinarazi dio iradokizuna onartzeaz gain, jada burututako ekintzak ere iradokizunarekin bat datozela eta dagoeneko koordinatu dela Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin, baita Lan eta Enplegu Sailarekin ere, ekintza horiek Lanbideren bitartez ahalik eta gehien zabaltzeko.



ARARTEKOAREN GOMENDIOARI JARRAIKIZ, EUSKO JAURLARITZAKO EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILAK INFORMAZIO PUBLIKOA ESKURATZEKO ESKAEREI ERANTZUNGO DIE, DAGOKION TRATAMENDUAREN BIDEZ

Sailak jakinarazi du baliabide egokiak jarriko dituela Arartekoaren gomendioak betetzeko eta informazio publikoa eskuratzeko eskaerei erantzuteko, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legea aplikatuz dagokion tratamenduaren bidez

Kexagileak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren informazio publikoa eskuratzeko aukera eskatu zuen, administrazioak eskainitako hainbat bitarteko elektronikoren bidez. Horien artean, informazioa eskatzeko postontzi orokorra erabili zuen. Administrazioak mezu elektronikoko bat bidali zion, eta adierazi zion, alde batetik, postontzia ez zela bide egokia eskaera hori egiteko, eta ez zela interesduntzat jotzen administrazio-prozeduran, eta, bestetik, eskatzen zuen sarbidea ukatzeko, gardentasun-araudian ezarritako muga bat aplikatuta; baina muga hori ez zen arrazoitu. Ebazpenean, Arartekoak nabarmendu zuen kexagileari erantzuteko aukeratutako bidea eta praktika ez zirela egokiak izan, eta bidezkoa zela izapideak bultzatzea eta, administrazio-prozeduraren baldintza teknikoak eta juridikoak betez, ebazpen arrazoitu bat jakinaraztea.

ARARTEKOAREN GOMENDIOA BETEZ, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAK UNIBERTSITATE-IRAKASKUNTZA GUZTIETARA ZABALDUKO DU HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN UPV/EHUKO IKASLEEI AUKERA BERDINTASUNA BERMATZEKO ARAUTEGIAREN APLIKAZIO-EREMUA



EHUK Arartekoari jakinarazi zion araudia aldatzeko barne-prozedura batzuk bete behar dituztenez gero, laster Gobernu Kontseiluari erreforma proposamen bat egiteko asmoa zuela, hark onar dezan. Hala gertatuko balitz, 2023-2024 ikasturtean jarriko litzateke indarrean

Arartekoaren ebazpenak EHUko ikasle baten kexa-idazkia du jatorrian. Ikasle horrek %82ko desgaitasun fisikoa duenez gero, hezkuntza-laguntzako teknikari bat behar du bere unibertsitate-ikasketak

gainontzeko ikasleek bezala egin ahal izateko. Interesdunak azaldu zuen hezkuntza-laguntzako teknikaria izan zuela Gizarte Laneko Gradua egin zuen lau urteetan, eta Gizarte Zerbitzuen Kudeaketa eta Berrikuntzako masterra ikasteko berritako laguntza hori eskatu ondoren, eskaera ezetsi egin zutela, Hezkuntza-premia bereziak dituzten UPV/EHUko ikasleei Aukera Berdintasuna Bermatzeko Arautegian ezarritakoaren arabera.

Ezesteko ebazpenean adierazi zenez, laguntza hura graduondoko titulu jakin baterako eskatu zen, eta titulu hori berezkoa denez gero, arautegi horretan ezarritakoaren arabera, ez zegokion hezkuntza-laguntzako teknikaririk, ez baita titulu ofiziala.

Arartekoak laguntza eskatu zion EHUri eta hark txosten bat bidali zion, non, besteak beste, honako hau jakinarazi zuen: *“El derecho a solicitar a la UPV/EHU la dotación de recursos a los estudiantes con discapacidad y/o necesidades educativas especiales está, como el ejercicio de cualquier derecho, sometido a límites”.*

Unibertsitateak hauxe gaineratu zuen: *“El reconocimiento del derecho a los y las estudiantes con discapacidad y/o necesidades educativas especiales matriculados en titulaciones propias de la UPV/EHU a disponer de medios, apoyos y recursos no solo comprometería seriamente la sostenibilidad del actual sistema de atención y apoyo a las personas con discapacidad y/o necesidades educativas especiales, sino que además haría inviables la continuidad del propio sistema de Enseñanzas Propias”.*

Hala ere, Arartekoaren ustez, eskatutako laguntza ez emateak ikasle horri galarazi egiten dio ikasi duen titulazioarekin (Gizarte Laneko Gradua) lotuta EHUk ematen duen espezializazio bakarra ikastea. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei aukerak bermatzeko indarreko arautegian ezarritakoaren arabera, ikasle horrek behar duen laguntza ukatzea desgaitasunagatik diskriminatzeko modu bat da.

Horregatik, Arartekoak EHUri gomendatu dio unibertsitate-irakaskuntza guztietara zabal dezala Hezkuntza Premia Bereziak dituzten UPV/EHUko ikasleei Aukera Berdintasuna Bermatzeko Arautegiaren aplikazio-eremua, izan ere, horrela bermatu egingo litzateke desgaitasuna duten ikasleek ikasketak horiek berdintasun-egoeran egitea. Arartekoak eskertzen du EHUren lankidetzeta eta araudi hori ahalik eta azkarren aldatzeko hartu duen erabakia.



ETXEBIZITZA SAILA EZ DATOR BAT ARARTEKOAREN ARGUDIO JURIDIKOekin eta ez dio zuzenean etxebizitza bat esleituکو premia bereziko taldeko bizikidetzak-unitate bati

Pertsona batek Arartekora jo zuen, ez baitzuen bera-riazko erantzunik jaso ezohiko prozeduraren bidez etxebizitza esleitzeko eskaera bati dagokionez. Kexagileak azaldutakoaren arabera, bere bizikidetzak-unitateak sei kide ditu; horietako bat adingabea da eta beste batek 22 urte ditu, %81eko desgaitasun-maila aitortua du eta mendekotasun handia du garuneko paralsiaren ondorioz. Adierazi zuen semearen egoerak okerrera egin duela azken urteetan eta gero eta zailagoa dela eguneroko ekintza oinarritzkoen zati handi bat egitea.

Gaineratu zuenez, bizi diren merkatu libreko etxebizitza ez dago egokituta, ez du gupil-aulkiarekin maniobrak egiteko leku nahikorik, eta behar duten garabia ez da sartzen etxebizitzan eta, beraz, ezinezkoa da semea behar bezala garbitzea.

Kexagilearen esanean, 2015eko azarotik "Etxebiden" inskribatuta daude eta orain arte ez zaie proposatu babes publikoko etxebizitza egokitu bat esleitzea. Gainera, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzako gas-tuetarako prestazio osagarria jasotzen dituzte.

Bilaketa aktiboa egiten ari diren arren, ezinezkoa izan omen da merkatu librean ere etxebizitza egokirik aurkitzea eta, horregatik, bere udaleko oinarritzko gizarte-zerbitzuetara jo omen zuen.

Oinarritzko gizarte-zerbitzuek egoera baloratu zuten eta udalak erabaki zuen ezohiko prozeduraren bidez egokitutako etxebizitza bat esleitzeko erabakia Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzari bidaltzea.

Bien bitartean, kexagileak hiru idazki bidali zituen Bizkai-ko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzara; idazki horietan semearen egoera berretsi zuen eta etxebizitza egokitu bat eskuratzeko beharra azpimarratu zuen. Ez zuen

Ordezkaritzaren erantzunik jaso, baina bai gizarte-zerbitzuen telefono-dei bat. Dei horren bidez jakinarazi zioten etxebizitza esleitzeko bere eskaera ez zutela onartu. Jakinarazpen pertsonalik jaso ez zuenez, ez zekien zergatik ukatu zitzaion eskaera eta erabakia errekurritu zitekeen.

Arartekoak laguntza eskatu zion Etxebizitza Sailari, eta hark, bere erantzunean, argudiatu zuen kexagilea eta bere bizikidetzak-unitatea ez zeudela etxebizitza egokitu baten zuzeneko esleipena baloratzeko aukera ematen duten aurreikusitako kasuetako batean ere: terrorismoaren edo genero-indarkeriaren biktimak, birkokatze-ko eskubidea duten pertsonak eta etxegabetze-egoeran dauden ahultasun bereziko pertsonak. Beraz, gizarte-zerbitzuei jakinarazi zieten etxebizitza ohiko prozedura-ren bidez esleitu arte itxaron behar zutela.

Hala ere, 39/2008 Dekretuak ezarrita du premia bereziko taldeek horrelako etxebizitza bat jasotzeko aukera. Hain zuzen ere, gutxienez bizikidetzak-unitateetan titular bat honako kolektibo hauetako kide denean: "*... adimen- eta garapen-desgaitasuna duten pertsonak eta gaixotasun mentala duten pertsonak, guraso bakarreko familiak...*"

Arartekoaren iritziz eta halaxe argudiatu du juridikoki, bizikidetzak-unitate horren egoera sartzen da etxebizitza premia berezia duen taldearen barruan, eta, beraz, arauz aurreikusitako kasuen barruan. Horregatik, Etxebizitza Sailari eskatu zion azter zezala eskaera ukatzeko erabakia.

Bere erantzunean, sail horrek berriro dio kexagilearen kasua ez dela talde horietako bakar batekoa ere; gainera, bere ustez, etxebizitza eske gizarte-zerbitzuetara joan den pertsona ez da interesduna.

ARARTEKOAK ETXEBIZITZA SAILARI GOMENDATU DIO BEHARREZKO NEURRIAK HAR DITZALA BEREN SEME-ALABEN ZAINITZA PARTEKATUTA DUTEN GURASO BANANDUAK EDO DIBORTZIATUAK ETXEBIZITZA ESKATZAILE GISA INSKRIBATU AHAL IZAN DAITEZEN



Bere alaben zaintza partekatua duen herritar batek Arartekoari adierazi zion ez zegoela ados “Etxebide” Etxebizitza Babestuaren Eskatzaileen Erregistroan bere inskripzioari baja eman izanarekin. Azaldu zuenez, 2015eko uztailetik, bi gurasoek bere alaben zaintza partekatuta dute eta habia-etxearen sistema izan zen judizialki berretsitako hitzarmen arautzailean itundutako araubidea, hau da, adostu zuten alabak familiaren bizilekuan biziko zirela eta gurasoek astero txandaka erabiliko zutela etxebizitza. Orobat, haren esanean, etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa izena emanda zegoen 2019. urtetik, baina ez zioten proposatu etxebizitza-esleipenik.

Merkatu librean etxebizitza merkerik ez zegoela eta, 2022ko urrian, eskaera egin zuen araubide orokoroko babes publikoko etxebizitzak esleitzeko prozedura batean parte hartzeko, bere udalerrian. Hartarako, udal ordenantza baten bidez, interesdunen berariazko erregistro bat sortu zen, baina Alkatetza Dekretu bidez, bere parte-hartzea baztertzea erabaki zuten. Bien bitartean, kexagileak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailaren jakinarazpen elektronikoa jaso zuela egiaztatu zuen, non jakinarazi baitzitzaion etxebizitza eskatzaile gisa zuen inskripzioari baja ematea erabaki zuela Bizkaiko lurralde ordezkariak. Izan ere, egiaztatu omen zuten ondasun higiezin baten jabeakidea zela eta, hartatik, ez zela behar bezala frogatuta geratzen bere etxebizitza-premia.

2023ko urtarrilean, kexagileak berraztertzeko errekurtsioa jarri zion Etxebizitzako sailburuordeari, berriro azaldu zuen bere egoera, berriro esan zuen dibortziatuta zegoela eta zaintza partekatua zela hitzartuta-

ko araubide juridikoa. Era berean, harridura erakutsi zuen izena eman zuenetik baja emateko erabakia hartu zen arte igarotako denboragatik, eta, izatez, adierazi zuen etxebizitza-eskatzaile gisa alta hartu ondoren, ez zuela inolako arazorik izan 2021ean izen-ematea berritzeko.

Familiaren etxebizitza txandaka erabiltzeak (alaben zaintza duten aldietan) esan nahi du urtean gutxienez sei hilabetean, kexagilearen bikote ohiak judizialki familia-etxebizitza gisa esleituta daukala kexagilea jabeakide den etxebizitza, eta, beraz, aldi horretan beteko lituzkeela etxebizitza-premia frogatzeari buruzko baldintzak.

Eta alderantziz, bikote ohiak ere beteko luke arauz eskatutako etxebizitza-premiaren baldintza hori, jabeakide den familia-etxearen erabilera kexagileari dagokion sei hilabetean.

Hortaz, Arartekoaren ustez, arauaren helburua aintzat hartzen duen interpretazioa eginez gero (arau horrek etxebizitzarik ez izateko baldintza salbuesteko kasuak arautzen ditu, banantze edo dibortzio kasuetan), errentamendu-erregimeneko etxebizitza babestua eskuratzeko aukera onartu beharko litzaieke bananduei edo dibortziatuei, baldin eta familia-etxebizitza aldizka erabiltzea esleitu bazaie judizialki. Horregatik, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailari gomendatu dio beharrezko neurriak har ditzala beren seme-alaben zaintza partekatuta duten guraso bananduak edo dibortziatuak errentamendu-erregimeneko etxebizitza babestuaren eskatzaile gisa inskribatu ahal izan daitezten.

ARARTEKOAK MUNGIAKO UDALARI GOMENDATU DIO AITORTU DEZALA ESKUDIRUTAN EGINDAKO ORDAINKETA UDALAREN KIROL-ZERBITZUAK ERABILTZEAGATIK ORDAINDU BEHARREKO TASAK ORDAINTEKO MODU GISA



Pertsona batek Arartekora jo zuen, izan ere, Mungian Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak ordaintzeko modu bakarra banku-helbideratzea zen. Adierazi zuenez, Udalari eskatu zion gaitu zezala udal-kiroldegia kuotak eskudirutan ordaintzeko aukera edo, behintzat, banku-erakunde batean ordaintzeko ordainketa-gutun bat jaulkitzeko aukera.

Nolanahi ere, bere eskaera ezetsi egin zen, izan ere, kirol-zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak arautzen dituen ordenantzan ezartzen denaren arabera, kiroldegiko aldizkako ordainagiriak eta abonua aurrez egingo dira, banku-helbideratzearen bidez. Udalak bere erabakia babesteko adierazi zuen erosoagoa zela zerbitzuaren erabiltzaileentzat, aurre-erapen teknologikoa aintzat hartuta.

ARARTEKOAK GASTEIZKO UDALARI GOMENDATU DIO TRAFIKOKO ARAUDIA HAUSTEAGATIK JARRITAKO ZEHAPEN BAT INDARGABETU DEZALA

Herritar batek Arartekoan adierazi zuen ez zegoela ados Gasteizko Udalak “*erabilera ordutegiaren barruan baimendu gabeko ibilgailu bat zamalanerako gunea batean aparkatzeagatik*” jarri zion isunarekin. Isuna agente batek bere ibilgailuaren kontra egin zuen salaketaren ostean jarri zitzaion. Kexagileak adierazi zuenez, araudiak desgaitasuna duten pertsonentzako aparkatze-txartela duten ibilgailuak zamalanerako gunean aparkatzea baimentzen du eta bere ibilgailuak bistara zuen txartel hori aurreko panelean, beti izan ohi baitu finko. Bere alegazioekin batera ibilgailuaren argazki bat aurkeztu zuen, txartela jarrita zuela egiaztatzeko. Txartelaren kopia bat ere aurkeztu zuen.

Arartekoak Udalera jo zuen eta zehapen-prozedurari dagokion administrazio-espeditentaren kopia bat eska-

Arartekoak, bere informazio-eskaeran, agerian utzi zuen udal-erabakia murrizketak txertatzen egon litekeela zerga-legeriak onartutako ordainketa-moduei dagokienez eta, era berean, Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako Lege Orokorrean kontsumitzaileen eta erabiltzaileen alde jasotzen diren bermeen kontra joan litekeela.

Bere erantzunean, Mungia Udalak bere jarduketa defendatu zuen, eta honako hau adierazi zuen: “*Ez dugu uste Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Lege Orokorra urratzen ari garenik kirol-instalazioetako abonua kobratzeko banku-helbideratzea eskatzen dugunean; izan ere, eskudirutan ordaintzeko bidetzat har daiteke, eta Udalak eskumena du ordaintzeko moduak arautzeko, zerga-arauak ezarritako muga barruan.*”

Arartekoa ados badago ere Mungia Udalaren ikus-puntuarekin, hots, zilegi dela eta -une jakin batzuetan- beharrezkoa zergen kobrantzaren kudeaketa erraztera bideratutako neurriak hartzea, ezarritako ekimenek ezin dute inola ere babestu zergadunei aitorturiko eskubideen murrizketarik. Hori dela eta, gomendatu dio bere zerga-ordenantzan jasotako xedapenak berrikusi ditzala eta Udalaren kirol-jarduerak ordaintzeko modu gisa eskudirutan ordaintzea onartu eta jaso dezala.

tu zuen. Era berean, “*Desgaitasuna duten pertsonentzako txartelarekin zamalanerako egokitutako gunean aparkatzea*” udal-eginbidearen indarraldiari buruzko informazioa eskatu zion; ea udaltzainak egiaztatu zuen inguruan zeuden (oso gertu) mugikortasun urriko pertsonentzako plazak okupatuta zeudela; eta ea udaltzainak egiaztatu zuen kalteak eragiten ari zitzaizkiela oinezkoen edo trafikoari eta hala jasota zegoen salaketa edo berrespenean.

Udalak administrazio-espeditentaren kopia bidali zuen, baina ez zuen eman erakunde honek mahai gainean jarri zituen alderdien berri. Alegazioen berri izan ondoren, salaketa jarri zuen agenteak berretsi egin zuen ezarritako zehapena, eta adierazi zuen salatutako ibilgailuak ez zuela ikusgai desgaitasuna duten pertsonentzako txartela. Hortaz, kontrajarritako bertsioak daude.

Edonola ere, Udalak ez du inoiz esan aparkatzeak oinezkoen edo trafikoari kalterik eragiten dienik, eta kexagileak frogatu du aparkatzeko erreserbatutako gunea erabiltzeko eskubidea duela. Horrez gain, txartela ikusgai ez edukitzea ez da, trafikoari dagokionez, Zirkulazioko Erregelamendu Orokorra urratzearen ziozko arau-hauste bat. Ondorioz, Arartekoak uste du zehapena ondorioz gabe utzi beharko litzatekeela.



ARARTEKOAK ARABAKO ALDUNDIAREN KULTURA SAILARI ESKATU DIO NEURRIAK HAR DITZALA KULTURA-ONDASUN GISA BABESTUTAKO ERAIKIN BATEN KONTSERBAZIOA BERMATZEKO

Herritar batek, Kuartango udalerrian kokatutako erakin baten jabetzaren izenean, kexa aurkeztu zuen Arartekoan, eraikin hori birgaitzeko beharrezkoak ziren obrak egiteko baimenak lortzea ezinezkoa zelako. 2021eko urtarrilean, hirigintza-lizentzia bat eskatu zion udalari. Eraikina udal-katalogoan udal-ondarearen babes-araubidearen barne zegoen, Kuartangoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra hala onetsita. Hori horrela, hirigintzako zerbitzuak kontsulta egin zion Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuari. Gainera, eraikina A-4351 auzoko errepide-sareko jabari publikoko zonan kokatuta zegoen.

Hori dela eta, Kuartangoko Udalak kexagileari jakinarazi zion hirigintza-lizentzia eman baino lehen nahitaezkoa zela Foru Aldundiko Azpiegiturak eta Mugikortasun Saileko Errepideen Zerbitzuak baimena ematea, eta, horrenbestez, irailean, kexagileak eskaera bat aurkeztu zuen sail horretan. Bide Azpiegituretako zuzendariak baimena ezetsi zuen. Ebazpenean jasotakoaren arabera, eraikina errepideko jabetza publikoko gunearen barruan dago. Hortaz, Errepideen Foru Arauan ezarritakoaren arabera, soilik eraikina kontserbatzeko nahitaezko obrak daude baimenduta. Kasu horretan, eraikina birgaitzeko eskatutako obrak kontserbazio-eta mantentze-lanetatik haratagokotzat jo ziren.

Hilabete batzuk aurrerago, kexagileak Errepideen Zerbitzuan beste baimen bat eskatu zuen, kasu ho-

rretan, estalkia eraberritzeko obrak egiteko; izan ere, kexagilearen ustez, lan horiek nahitaezkoak ziren eraikina kontserbatzeko eta narriatzea ekiditeko.

Bide Azpiegituretako zuzendariak eskaera berriro ezetsi zuen, eta adierazi zuen, estalkiaren egoera txarra ikusita eta galtzadatik hain hurbil dagoela kontuan hartuta, baimendu ahal izango litzatekeen jarduketak bakarrik eraikina osorik eraistea litzatekeela.

Kexagileak udalera jo zuen, berriz ere, eraikina eraisteko aukerari buruz galdetzeko, eta Errepideen Foru Sailaren ebazpena aurkeztu zion. Udalak erantzun zion ezin zela eraitsi, ondarea babesteko araubidea dela eta. Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak ere berretsi zuen eraikinak oinarritzeko babeseko kultura-ondasunaren kalifikazioa zuela, eta, beraz, ezin zela eraitsi.

Erantzunak bat ez datozenez, Arartekoak Arabako Foru Aldundiaren Kultura Sailari gomendatu dio dagokion espedienteak has dezala dauden kalteak lehenagotzeko eta babestutako eraikina galtzea saihesteko beharrezkoak diren neurriak egikaritu daitezela agindu ahal izateko. Halaber, Azpiegituretako Sailari iradoki dio azter dezala aukerarik dagoen hiri-tarte hori egokitu dadila sustatzeko, kultura-ondarea babesteko betebeharrak bateragarria izan dadin errepideei buruzko araudiarekin.

ARARTEKOAK HEZKUNTZA SAILARI GOMENDATU DIO BERRAZTER DEZALA 2023-2024 IKASTURTEARI BEGIRA ADINAGATIK IRAKASTORDUAK MURRIZTEKO EGIN DIREN ESKAERAK EZESTEKO ERABAKIA. INTERESDUNEK BEREN BORONDATEZ ERRETIROA HAR ZEZAKETELAKO EZETSI DITU ESKAERA HORIEK



Hainbat pertsonak esku hartzeko galdegin zioten Arartekoari, izan ere, Hezkuntza Sailak erabaki zuen beraien kasuan ez aplikatzea adinagatik irakastorduak murrizteko figura. Figura horri esker, heren bat murriztu daitezke unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako irakasleek oro har duten irakastorduak, eta dagokion ikastetxearen zuzendaritzaren esku jarri behar dira murrizketaren ondoriozko orduak, murrizketa lortzen dutenei hark adieraz diezaien zer zeregin zehatz egin behar dituzten aldi horretan.

Kexagileek nabarmendu zuten murrizketa hori onartu zietela aurreko ikasturteetan, baina aurtengo ikasturteko eskaerak ez direla onartu, orain beren borondatez erretiroa hartzeko aukera dutela argudiatuz. Haien esanean, aurretiaz borondatezko erretiroa eskatuz gero, beren pentsioa ehuneko handi batean murriztuko litzateke, nahiz eta, kasu batzuetan, 40 urtetik gorako kotizazioa egjzatu. Horrela, 63 urtetik aurrera irakas-lanaldi osora itzultzea beste aukerarik ez zuten, eta hori figura horren helburuaren kontrakoa iruditzen zitzairen.

Arartekoak Hezkuntza Sailari eskatu zion jakinaraz zezala zer justifikazio juridiko zuen lan-baldintzak arautzeko Akordioa ez aplikatzeak, eta ea prest zegoen eskaerak ezesteko erabakia berraztertzeko.

Adinagatik irakastorduak murrizteko aukera Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoan aurreikusita dago, ikastetxe publikoetako langileek egindako irakaslan aitortu eta balioesteko neurri gisa.

Erakunde honen ustez, ez dirudi erraz azal daitekeenik halako oinarria duen figura batek, 60 eta 63 urte bitartekoei oro har aplikatzean behintzat, oinarri hori galdu ahal izatea.

Horregatik, Arartekoak Hezkuntza Sailari gomendatu zion berrazter zezala 2023-2024 ikasturteari begira adinagatik irakastorduak murrizteko egin ziren eskaerak ezesteko erabakia. Interesdunek beren borondatez erretiroa har zezaketelako ezetsi ditu eskaera horiek.

LANBIDEK KONTUAN HARTU DU ARARTEKOAREN GOMENDIOA, ETA BERRIZ AZTERTUKO DU ALDI BATEAN MANTENU-PENTSIOA OSORIK ORDAINDU EZIN IZAN ZUEN HERRITAR BATI DSBEA ETETEKO ERABAKIA



Herritar batek Arartekora jo zuen, izan ere, Lanbidek lehendabizi eten eta gero amaitu egin zion onartuta zeukan diru-sarrerak bermatzeko errenta (DSBE), bere laneko sarreraren osagarria, eta ezin zuen hura berriro eskatu urtebetean. Kexagilea bigarren aldiz ezkondata zegoen eta 2 seme-alaba adingabe zituen oraingo bikotearekin. Lehenbiziko ezkontzatik beste 5 seme-alaba zituen, zeinak bere bikote ohiarekin bizi ziren, hark umeen zaintza eta jagoletza eskusibo baitzeukan, guraso bakarreko familia ugari gisa.

Judizialki berretsitako guraso eta seme-alaben arteko neurrien hitzarmen bat zeukaten eta, haren arabera, hilean 300 euroko mantenu-pentsioa onartu zitzen bere lehenagoko harremaneko seme-alabei. Hitzarmen hura kexagilearen bi seme-alaba gazteenak jaio baino lehen adostu zen eta ez zen eguneratu kexagilearen oraingo familia-kargak kontuan hartuta. 2010an hitzarmena sinatu zenetik, ia 10 urtean, kexagileak bete zuen hitzarmenean ezarritakoa, mantenu-pentsioa hileroko ordaintzea barne hartuta.

Hala ere, iraupen luzeko depresio klinikoarekin zerkusia zuten osasun mentaleko arazoengatik, medikuaren baja hartu zuen. Horregatik, gutxituz joan ziren bizikidetzaren unitatearen laneko diru-sarrerak, hilean 760 eurora hain zuzen, eta aldi batean ezin izan zuen mantenu-pentsioa osorik ordaintzen jarraitu.

Kexagileak mantenu-pentsio txikiagoa ordaintzen jarraitu zuen, hilean 100 eta 200 euro bitartekoa, eta ez zuen auzibidean formalki eskatu guraso eta seme-alaben arteko neurriak alda zitzaten, izan ere, bere ustez, egoera hura aldi baterakoa zen eta medikuaren baja bukatzean lehengoratuko zen; patologia halakoa izanda, bere medikuak ere ezin zuen aurreratu baja horrek noiz arte iraungo zuen. Orobat, Lanbideri jakinarazi eta egiaztatu zion laneko bere diru-sarrerak gutxitu egin zirela.

Hala eta guztiz ere, Lanbidek lehenbizi aldi baterako eten eta gero amaitu egin zion familiak onartuta zeukan DSBEa, eta ezin zuen berriro eskatu urtebete igaro arte.

Arartekoak bere gomendioan adierazi zuenez, Lanbidek hartutako erabakia ez zen arrazoizkoa. Nabarmendu zuen ez zituela balioetsi prestazioaren titularraren inguruabar zehatzak, eta ez zituela aintzat hartu hark aurkeztu zizkion informazioa eta agiriak une hartan familiak aurre egin beharreko arazoak egiaztatzeko. Gainera, hauxe azpimarratu zuen: egoera hartan, administrazioak ez zuela aukeratu behar, inolaz ere, kexagilearentzat eta ekonomikoki haren mende dauden 9 pertsonentzat zailena zen hautabidea.

Lanbidek jakinarazi du kontuan hartu dituela Arartekoaren gogoetak, onartzen duela gomendioa eta aztertuko duela interesdunak aldi horretan jaso beharko zituzkeen kopuruak ordaintzeko aukera.

OFIZIOZKO JARDUERAK



Arartekoak informazioa eskatu du Euskadiko espetxetan gertatutako bi presoren heriotzaz

Bi lagun hil ziren euskal espetxe-administrazioaren eskumeneko bi espetxetan. Arartekoak ofiziozko jarduera bat hasi zuen horren gainean, hainbat hedabidetatik nahiz Eusko Jaurlaritzaren bozeramaileak eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuak egindako adierazpenetatik bildutako informazioaren ondorioz. Bi kasuetan, heriotzen ingu-

ruabarrak kontuan hartuta, litekeena da bi buru-hiltze izatea. Jendaurrean jakinarazi zenez, Eusko Jaurlaritzak dagozkion espedienteak hasi zituen bi kasuetan gertatutakoa ikertzeko, eta Arartekoak jakin ahal izan zenez, barne-ikerketak egiten jarraitu zuen egintzak argitzeko. Era berean, berriz aztertzen ari zen espetxetan buru-hiltzei aurrea hartzeko protokoloa.

Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailari gomendatu dio, adingabeak tartean direnean, malgutu eta homogeneousatu ditzala irizpideak presoek beren senide eta hurbilekoekin dituzten komunikazioetan

Arartekoak urtero bilera egiten du espetxe arloko hirugarren sektoreko erakundeetako ordezkariekin. Bilera horietan zenbait kexa adierazi ziren Euskadiko espetxeetako komunikazioei buruz; horregatik, Arartekoak ofiziozko jarduera bat hasi zuen eta erakunde-ko langile batzuek bisitak egin zituzten Euskadiko hiru espetxeetako instalazioetara. Arartekoak arazoak zeudela ikusi zuen eta, beraz, hobetzeko tartea, presoen eta haien senide eta hurbilekoen arteko komunikazioetan.

Euskadiko hiru espetxeei buruzko informazioa bildu ostean, Arartekoak amaitu du ofiziozko jarduera hori eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu dio malgutu eta homogeneousatu ditzala irizpideak bizikidetza-komunikazioak baimentzeko eta arautzeko, eta modu komun eta orokorrean jaso dezala bizikidetza-gunean egiten den ahozko komunikazioaren modalitatea, baita 13 urtetik beherakoentzat ezarritako praktika hori 18 urtetik beherakoei zabaltzea ere.

Arartekoak Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailari gomendatu dio irizpide homogeneousak ezar ditzala presoek eragile juridikoekin dituzten komunikazioetan

Espetxe arloko hirugarren sektoreko erakundeetako ordezkariak, abokatuen elkargo ohoretsuetako gobernu batzordeetako ordezkariak eta espetxe-laguntzako txandakoek zenbait kexa adierazi zioten Arartekoari Euskadiko espetxeetako komunikazioei buruz; horregatik, Arartekoak ofiziozko jarduera bat hasi zuen. Euskadiko hiru espetxeei buruzko informazioa bildu ostean, Arartekoak amaitu du ofiziozko jarduera hori eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatu dio malgutu eta homogeneousatu ditzala eragile juridikoekin egiten diren horrelako komunikazioei ezarri beharreko irizpideak; elkarrizketak kontaktuarekin egin daitezzen ahalbidetu dezala, betiere aldeek hori onartzen badute; ken daitezela kabinetako burdin-barrak; zirrikituak utz ditzatela, funtzionarioek agiri-trukean esku hartu behar izan ez dezaten; eta eragile juridikoek, egokia iruditzen zaienean, beren lana egiteko behar dituzten gailu elektronikoak sartu ahal izan ditzatela.

Arartekoak emisio txikiko eremuak sortzeari buruzko informazioa eskatu die 50.000 biztanle baino gehiago dituzten Euskadiko sei udalerri



Erakunde honek ofiziozko jarduera bat hasi zuen mugikortasun jasagarria sustatzeaz arduratzen diren herritarren elkarte batzuetatik jasotako informazioaren ondorioz. Elkarte horiek agerian jarri dute Euskadiko udalerrri batzuk atzeratu egin direla emisio txikiko eremuak (ETE) arautzeko orduan. Gaur egun, Euskadiko sei udalerrri daude araudi horren eraginpean: Bilbo, Gasteiz, Donostia, Getxo, Barakaldo eta Irun.

Berotegi-efektuko gasen emisioak gutxitzea funtsezkoa da klima-aldaketaren kontrako borrokan. Horrela, Arartekoak proposatzen du emisio txikiko eremuak arautzearen tramitazio-egoera aztertzea. Hori jendaurrean eta gardentasunez egin dadin aldeztu du, herritarren parte-hartze egokia ahalbidetuz eta neurriak sor ditzaketan kostu eta onura ekonomiko nahiz sozialen ondorioak ebaluatuz.



Arartekoak Bizkaiko Foru Aldundiari gomendatu dio berma dezala adingabe atzerritarrak segurtasunez eta duintasunez hartzen dituztela premiazko harrera-programan

Herritar batzuek 2021eko azken egunetan egindako kexa batean, Arartekoak informazioa jaso zuen Viveroko egoitza-baliabidean zeuden baldintza eskasei buruz. Egoitza hori Galdakaon dago (Bizkaia), familia-erreferenterik ez duten adingabe atzerritarrei ematen die ostatu eta abenduaren hasieran ireki zuten, Zornotzako (Bizkaia) lehen-harrerarako zentroan piztutako sutearen ondoren. Salaketan azaldutako egoera egiaztatzeke asmoz, Arartekoak ofiziozko jarduera bat hastea erabaki zuen; jarduera haren esparruan, hainbat bisita egin zituen zentro horretara, eta bilera bat aldundiko Haur Zerbitzuarekin, bere ustez bildu behar zen informazio guztia aztertzeaz gain. Espedientea izapidetzean, erakunde honek jakin zuen foru zerbitzuak Zornotzako zentroa berriz irekitzeko asmoa zuela, lehen harrera egiteko aurrekoa ez bezalako eredu batekin eta erakunde kudeatzaile berri batekin. Babesik gabe dauden adingabeei (kasu honetan atzerritarrak dira) lehen harrera edo premiazko harrera egiteko programa egoki bat prestatzeko oinarrizkoentzat jotzen dituen elementuei heldu nahi izan die batez ere Arartekoek bere analisisian eta, hortaz, bere ebazpenean, programa hori egoitza batean zein bestean burutu. Azkenik, Arartekoak Aldundiari gomendatu zion programa espezializatu berriak gara zitezela portaera-arazoak edo portaera-arazo larriak dituzten nerabeentzat. Programa horiek hezkuntza-arreta handiagoa behar duten mutikoak artatzen dituztenez gero, hezitzaile gehiagok hornitzen dira, baita gainontzeko programek ez dituzten berriazko beste neurri batzuez ere. Horien bitartez, mutiko horietako batzuen premia bereziei erantzun ahal izango zaie.

DISKRIMINAZIOA ETA DISKRIMINAZIOAREN AURKAKO POLITIKAK EAE-N

Azterlan honek dagoen esparru juridikoa aztertzen du, eta diskriminazioari aurre egiteko proposamenak biltzen ditu. Horretarako, berdintasun-erakundeen birtualtasunari, prebentzio-, babes- eta erreparazio-neurrien beharrari eta datuak biltzearen garrantziari erreparatzen die, besteak beste, tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezarako eskubidearen aitortzatik eratorritako obligazioak betetzeko beharrezkoak diren jarduketan baita.

Hautemandako arazoaren artean honako hauek daude: diskriminazioaren aurkako arloan behar bezala jantzitako erakunde independente baten falta; gutxiengoen ordezkari diren kontsulta-organoen diseinuan eta funtzionamenduan antzemandako gabeziak; sare sozialetan diskriminazioa, aurreiritziak eta estereotipoak agertzea, eta urritasunak egotea gorroto-diskurtsoaren aurkako borrokan edo berdintasunari eta diskriminazioari buruzko datuak bildu eta aztertzeko lanetan, bai eta diskriminazioaren aurkako estrategia eta planetan ere.

Era berean, aipatzekoa da ez dela azterlanik egiten politika publikoek talde gutxituetan eragiten dituzten kalteen inguruan; gainera, segurtasun-ingar eta -kidegoen jardueretan profil etnikoak erabiltzen dira, eskola-segregazioa dago eta gertakari arrazistak gertutik kontrolatzeko lanetan gabeziak antzeman dira.

Euskal administrazio publikoek arlo horretan egindako jarduketan ahalik eta argazki zehatzena eskaini ahal izateko, Arartekoak informazio hori bildu zuen.

Azterlanaren amaiera gisa, Arartekoak zenbait **gomendio** zerrendatu ditu, besteak beste:

EAEn tratu-berdintasunari eta diskriminaziorik ezari buruzko lege bat prestatzeko lanetan aurrera egitea

2023an pauso garrantzitsuak eman dira lege hori prestatzeko. Oso garrantzitsua da Euskadin arau-esparru propioa izatea, tratu-berdintasunerako eskubidea, pertsona bakoitzaren duintasunarekiko errespetua eta edozein diskriminazioaren aurkako babes hobeto bermatu daitezkeen. Lege hori onartzeak proiektu garrantzitsua izango du euskal sektore-araudian eta administrazio publikoaren jardunaren orientazio egokian.





Berdintasunerako erakunde bat sortzea

Berdintasunerako erakunde bat izatea funtsezkoa da diskriminazioaren biktimen babesna bermatzeko. Gainera, esku-hartze kolektiboagoak egitea ahalbidetuko du, politika publikoen eta prebentzio-proposamenak sustatzeko lanetan aurrera egiteko eta, horrela, pertsonengan, erakundeetan eta gizarte osoan aldaketak eragiteko.

Berdintasunerako erakunde bat eraginkorra, irisgarria eta eraldatzailea izan dadin, ezinbestekoa da haren diseinuak kontuan hartzea ezinbesteko parametro batzuk errespetatzeko eskakizuna: independentzia; giza baliabide, baliabide tekniko eta ekonomiko nahikoak; prebentzio-, babes- eta konponketa-funtzioen esleipena, eta gatazkak konpontzeko ahalmen alternatibo eta osagarriak. Eta, jakina, politika publikoetan eragina izateko ahalmena.

Ikuspegi errestituatiboaren lehentasuna

Ikuspegi errestituatiboa baliozko aukera dugu jarduketa eta jokabide diskriminatzaileak prebenitu, babestu eta erreparatzeko neurriak artikulatzeko, administrazio-errekamazioen edo organo judizialen aurrean egindako salaketan osagarri gisa. Justizia errestituatiboko neurrien asmoa da eremu komunitarioak sortzea, non biktimizazioak jasan dituzten edo jasaten dituzten pertsonen lagundu, entzun eta haien duintasunean erreparatuko zaien.

Datuak bildu eta aztertu beharra, diskriminaziorik ezaren arloko betebeharrak betetzeko.

Politika publikoak diseinatzeko azterlanak egitea eta berdintasunari buruzko datu bereziak biltzea funtsezkoa da diskriminazioa eta haren ezkutuko zifra ikusarazteko, prozedura administratibo eta judizialtan frogak emateko eta joerak gainbegiratzeko. Era berean, interesgarria izango litzateke eskubideen benetako erabilerari edo krisiek talde zaurgarri diskriminatuetan duten inpaktuari buruzko azterlan zorrotza egitea. Datuak biltzeko, nolana ere, nahitaezkoa da arau-esparru egoki bat izatea.

Gorrito-diskurtsoari aurre egiteko neurriak hartzeko beharra

Gai problematiko, partzial eta estigmatizatzaileei buruzko informazioak eta diskurtsoak, kolektibo ahultako kideei egozten zaizkien abusuzko edo delituzko jardura jakin batzuetan ardaztuta eta iritzi publikoan eta sare sozialetan zabalduta, batez ere eztabaida publikoari eragiten badio, legitimatu egiten ditu diskriminazio-jokabideak eta diskriminazio sistemikoa katalizatzen dituzten iritziak. Hori saihesteko zeregin garrantzitsua dute komunikabideek.

Behar-beharrezkoa da gorrito-diskurtsoari aurre egiteko dauden proposamenak kontuan hartzea, batez ere eragin penalik ez dutelako gutxien garatuta daudenak, bai eta Euskadiko egoerari eta testuinguruari egokitutako tresna, protokolo edo estrategia bat garatzea ere.

Nabarmendu beharreko beste gomendio batzuk:

- Maila anitzeko koordinazioa hobetzea Estatutako Administrazio Orokorrarekin eta Euskadiko administrazio publikoen
- Diskriminazioaren aurkako borroka erdigunean jarriko duten eta jarraipena nahiz ebaluazioa egiteko adierazleak aurreikusiko dituzten plangintza-tresnak eta estrategiak egitea.
- Antolakunde sozialek eta diskriminazioaren xede diren kolektiboek kontsulta-organoetan parte har dezaten sustatzea.
- Jarduketa diskriminatzaileen edo arrazisten biktima errealei eta potentzialeari informazioa, aholkua eta bidalguntza ematea.
- Jarduketa eta jokoera diskriminatzaileak prebenitu, babestu eta erreparatzeko neurriak ezartzea, administrazio-errekamazioa edo organo judizialen aurreko salaketa osatzeko.
- Erabakiak hartzeko mekanismo automatizatuetan bermeak ematea.
- Giza eskubideen eta diskriminaziorik ezaren arloan prestatzeko programak indartu eta hedatzea.
- Iruditeria diskriminatzaileak erreproduzitzearen ondorioen inguruan sensibilizatzea Euskadiko herritarrek.

HERRITARREN SEGURTASUNERAKO BIDEOZAINZA EUSKADIKO EREMU PUBLIKOAN. OINARRIZKO ESKUBIDEEN IKUSPEGITIK EGINDAKO AZTERLANA

Arartekoak egiaztatu du euskal administrazioek betetzen dituztela, oro har, herritarren segurtasunerako bideozaintzako arauzko eskakizunak, baina, bere ustez, hobetu egin behar dira erregulazioa, barne-kudeaketa eta gardentasuna.

Arartekoak egindako azterlan horren bidez, eskubideak bermatzearen arloan ezagutza zabalzen lagundu nahi da segurtasun arloan esumenak dituzten euskal administrazio publikoen artean, hobetzeko alderdiak iradokiz, herritarren segurtasuna eta oinarrizko eskubideak modu egokian uztartzeko oinarritzat har daitezten. Orobat, euskal herritarrek bideozaintzaren eremuan beren eskubideak eta askatasun publikoak nola gauzatu jakitea du helburu, herritarren segurtasuna norbanakoaren eskubide-askatasunak bermatzeko funtsezko tresna izan dadin.

Testuinguru horretan, irudiak eta soinuak grabatzeko teknologiak erabiltzean, bideozaintza arautzen duen berme-araubidea bete behar da, polizien jarduerari gardentasuna, legitimazioarekiko konfiantza eta proportzionaltasuna emateko.

Ararteko erakundeari dagokio datu pertsonalak eta intimitatea babestearen arloan herritarren eskubideak bermatzea, are gehiago administrazioarekiko harremanetan datuak hartzen badira, batez ere intrusiboak izan daitezkeen teknologien bidez, bereziki gailu mugikorrek erabiliz, esaterako, dronak, makuluak eta poliziaren uniformeetako kamerak.

Horregatik, beharrezkoa iruditu zaio azterlan hori egitea, toki publikoetako bideozaintza-sistema batzuen erabilera aztertzeko, baita Euskadiko administrazio publikoek araudian ezarritako berme-sistema zenbateraino betetzen duten ere.

Azterlana prestatzeko, Arartekoak inkesta bat egin zien polizia duten hainbat administrazioi; hau da, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eta adierazgarriak diren 14 udali.

Emaitzak azterlanean barrena aztertzen dira. Bertan, 9 ondorio atera dira eta 16 gomendio egin dira.





Bildutako datuen artean, instalazio finkoen eta gailu mugikorren kopurua dago, erakunde parte-hartzailerik adierazitakoa. Adibidez, Ertzaintzak 2.037 kamera finko ditu eta, 2022an, 134 aldiz erabili zituen gailu mugikorrak; Gasteizko Udaltzaingoak, 600, gutxi gorabehera; Bilbokoak 265; Donostiakoak 350; eta Getxokoak 265.

Ondorioetan, Arartekoak azpimarratu du **eskumenak dituzten euskal administrazioek zehatz-mehatz bete behar dutela herritarren segurtasunerako bideozaintza-araudian aurreikusitako proportzionaltasun printzipioa**. Horrela, defentsa-erakunde honek proposatzen du bideozaintza-baimena eskatu baino lehen, ebalua dadila ea neurri horrek intimitate eskubidean esku-sartzerik eragingo duen.

Orobat, adierazi du xedapenak onartu behar direla, gailu mugikorrei buruzko (besteak beste, polizi uniformeetako kamerak, dronak edo makuluak) erregulaziorik eza betetzeko, Euskadiko administrazio publikoek dagokien arautze-esparruan. Horretarako, gailu mugikorrak zein kasu zehatzetan erabiliko diren eta irudi-soinuak zenbat denboran eta zein tokitan hartuko diren azaltzea gomendatu du.

Bideozaintza erabiltzeko erabakia herritarren segurtasuna babesteko premian sar daiteke juridikoki, administrazioak herritarren bizikidetzara, indarkeria desagerraraztea eta bide eta toki publikoak bakean erabiltzea ziurtatu nahi duenean, baita segurtasun publikoarekin zerikusia duten delitu, hutsegite edo arau-hausteak prebenitu nahi dituztenean ere.

Beste atal batean, Arartekoak gomendatu du kamera mugikorrak erabiltzeko baimen-eskaeretan, adieraz dadila zer epe zehatzetan erabiliko diren, kasuan kasuko arrisku zehatzera doituta. Orobat, gardentasun aktiboko neurri gisa, Eusko Jaurlaritzak bideozaintza-sistema finko nahiz mugikorrak erabiltzeko baimenak argitaratu dituzten iradokiak ditu.

Hain zuzen ere publizitate eta gardentasun arloan, Arartekoak ikusi du parte hartu duten administrazio publikoek, oro har, informatzeko kartelak erabiltzen

dituztela bideozaintza-sistema finkoen erabileraz ohartarazteko, baina, halaber, egokia iruditzen zaio beste bitarteko batzuk ere baliatzea gailu mugikorren bidez irudiak hartzen direla jakinarazteko.

Gainera, adierazi du **garrantzitsua dela bideozaintza-grabaketak kudeatzeko barruko protokoloak edo tresnak ezartzea, ez baitago erregulaziorik grabaketak gordetzeko gutxieneko epeei buruz**. Jarduteko jarraibide argiak izango balira, grabaketen konfidentzialtasuna, trazabilitatea eta osotasuna ziurtatu ahal izango lirake, eta, hala balegokio, legitimazioa duten hirugarrenen eskura jartzea.

Irudi-datuak tratatzeari buruz, Arartekoak ontzat jotzen du parte hartu duten administrazio gehienek eskubideak baliatzeko prozedura dutela aipatu izana. Hala ere, eskaerak zein organori aurkeztu behar zaizkion zehaztu behar dela adierazi du.

Azterlanean egiaztatuenez, administrazio gehienek bideozaintzarekin zerikusia duten datu pertsonalak tratatzeko jardueren erregistroak dituzte, baina, dena den, horiek aldira berriki daitezkeen eta administrazio bakoitzeko gardentasun-atarietan argitaratu daitezkeen gomendatu du.

Bukatzean, azterlanean lankidetzan aritu diren administrazio publikoek aipatu dute segurtasun-neurriak ezartzen dituztela bideozaintzako irudien konfidentzialtasuna zaintzeko. Alderdi positibo horrekin batera, Arartekoaren ustez, komenigarria litzateke bideozaintzarekin lotutako datu pertsonalak kudeatu eta tratatzeko eskuduntza duten langileak gaitzea.

Azken batean, Arartekoak egiaztatu du **euskal administrazioek betetzen dituztela, oro har, herritarren segurtasunerako bideozaintza arloko arauzko eskakizunak**. Hori esan ondoren, irudiak hartzeko sistemen bilakaera teknologikoaren ondoriozko erronkak ikusita, **bideozaintzaren arloko erregulazioan, barne-kudeaketan eta gardentasunean hobetu daitezkeen hainbat alderdi aurreratu ditu**.

ERAKUNDE-ADIERAZPENAK

Erakunde-adierazpenen bidez, Arartekoa jendaurrean agertu izan da zenbait efemerideren ospakizuna dela-eta euskal gizarteari mezu bat helarazteko interesgarriak diren zenbait gairen inguruan hitz egiten. Jarraian, 2023ean zehar egindako erakunde-adierazpen nagusien laburpen bat jaso dugu.



EKAINAK 5 Ingurumenaren Munduko Eguna

Hondakin plastikoaren izurriteari aurre egitea beharrezkoa da, horien erabilera murriztuz produktuen diseinutik bertatik, erosteko unean edo, gutxienez, hondakinak behar bezala kudeatuz, ingurunean sakabana-tzea saihestuko duen birziklatzearen bidez.

Gure gizartean plastikoak neurritz kanpo erabili ohi dira, eguneroko produktuak (esaterako, plastikozko poltsak eta bilgarriak) berehala kontsumitzeko premia baitago, eta horiek planetarako ingurumen-karga bihurtzen dira berehala.

Ingurumenaren Eguna ingurumen-neurri eraldatzaileak mobilizatzeko aukera gisa proposatzen da. Aurrerapen zientifikoak behar dira, botere publikoen eta enpresa-sektorearen apustu irmoa bultzatu behar da plastikoaren bizi-ziklo osoari buruzko asmo handiko politikak garatzeko. Plastikoa oztopoak jartzera bideratuta dauden tokiko kanpainen indar eraldatzaileak ere nabarmendu behar da.



EKAINAK 26 Torturaren Biktimei Laguntzeko Nazio Batuen Nazioarteko Eguna

Arartekoari dagokio giza eskubideetan oinarritutako kultura zabaltzea, tortura bezalako delitu larriak prebenitzeko eta egia-rako, justiziarako eta biktimen erreparaziorako eskubidea gauza dadin sustatzeko

Tortura gizon-emakumeen kontrako krimena da, preskribaezina. Biktimaren osotasun fisikoa eta nortasuna suntsitzen ditu, pertsona izateak berez duen duintasuna arbuatuz. Tortura erabat debekatu dago eta ezin da inolaz ere justifikatu. Horrela, Nazio Batuek eta nazioarteko erkidego osoak beti gaitzetsi izan dute torturatzea, gizaki batek beste baten kontra egin dezakeen ekintza arbuia garrinetako bat baita.

Nazioarteko zuzenbideak torturaren biktimaren benetako erreparazioa bultzatzen du, lehengoratzeko, kalte-ordaina emateko, birgaitzeko, gogobetetzeko eta berriro ez gertatzeko bermeak emateko barne direla. Horregatik, Arartekoak euskal erakundeak eskatzen die jarrai dezatela biktima guztiei laguntzeko politikak egiten eta babesak erakusten.



EKAINAK 28 LGTBI Harrotasunaren Eguna

Garrantzitsua da euskal erakundeek bitarteko guztiak jar ditza-tela, beti babes egokia eta bermatzeko diskriminazioaren eta gorroto ekintzen edo diskurtsoen aurrean oraindik ere halakoak burutzen dira pertsona batzuen kontra, beraien sexu-joeragatik edo genero-identitateagatik

LGTBI kolektiboen borrokari eta azken urteotan beraien errebinkazioak jasoz joan diren lege-erakunde-aldaketek eskertzen, Euskadik adostasun historikoa lortu du LGTBI pertsonen eskubideak errespetatu beharraz. Gaur egun, euskal gizartean, gizon-emakume anitz modu solidarioan bizi dira elkarrekin, du-darik gabe, bere adierazpen guztietan. Horri eskerrak, pertsona ugari-beren bizitzak eta familiak bidera ditzakete, beren identitatea, afektibitate eta sexualitatea gara ditzakete bidegabeko trabarik gabe eta gizartearen onarpen osoarekin.

Egun honetan Arartekoak berriz ohartarazi nahi du euskal botere publikoek pertsona horien benetako berdintasun eraginkorra galarazten duten oztopoak kentzen jarraitu behar dutela. Horretarako, ezinbestekoa da ekintza positiboko eta gizartea sentsibilizatzeko neurri publikoetan sakontzen jarraitzea, izan ere, neurri horiek kolektibo horren-ganako tolerantzia eta elkarrekiko begirunea, elkartasuna eta empatia sustatzera bideratuta daude.



UZTAILAK 18
Nelson Mandelaren
Nazioarteko Eguna

Funtsezkoa da ahaleginak egiten jarraitzea, euskal espetxe-administrazioa ezaugarri hauetan finkatzea lortzeko: pertsonaren duintasun-printzipioak eta erki-degoan birgizarteratzea, politika publikoak sar daitezten sustatuz

Espetxeratuak beti arreta berezia behar duten taldea izan dira Arartekoarentzat, kalteberatasun handiko egoeran daudelako eta askatasunik gabe egoteak mugak jartzen dizkiolako gainontzeko eskubideak baliatzeari. Arartekoari beharrezkoa iruditzen zaio erakunde eta botere publikoek presoen errehabilitazioan diharduten espetxe arloko hirugarren sektoreko erakunde horiei laguntza ematea, Euskadiko presoen gizarteratze-sare eraginkorra ezartzeko.

Egun honetan Arartekoak euskal erakunde guztiak animatzen ditu modu koordinatuan lanean jarraitzera erregimen irekiko zigorrak eta neurriak bultzatzeko, euskal gizarteratze-sarea eraikitzen aurrera egiteko eta espetxeratzea birgizarteratzera bideratzeko.



URRIAK 1
Adinekoen Nazioarteko
Eguna

Arartekoa Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren alde azaltzen da, Ongizate Estatuaren benetako zutabe izango dena

Arartekoak egun honetan adinekoen giza eskubideak erabat bermatzeko beharra aldarrikatzen du. Politika publikoek independentzia-, partaidetza -duintasun-, laguntza- eta autoerrealizazio-printzipioetan oinarritu behar dute, pertsonen euren bizi-ziklo osoan ongizate fisiko, sozial eta psiko-afektiboko potentziala garatu ahal izan dezaten.

Euskadin adinekoek nahiago dute mendekotasun-egoerei euren etxeetan aurre egitea. Beraz, beharrezkoa da EAEko gizarte-zerbitzuek pertsona askok pairatzen dituzten isolamendu-egoerak gainditzen laguntzea, ondore horretarako pertsona bere etxean mantentzeko neurri posible guztiak hartuz. Neurri horien artean daude, besteak beste, prestazio ekonomikoak eskuratzea, etxez etxeko laguntzak, laguntza-produktuak, etxebizitzaren egokitzapena, eguneko zentroak eta zentro okupazionalak, egoitzetako eta eguneko zentroetako aldi baterako eta asteburuko egonaldiak, zaintzaileei laguntzeko programak edo autonomia pertsonala sustatzeko zerbitzuak.




ABENDUAK 18
Migratzailearen Nazioarteko
Eguna

Arartekoak migrazio-bide seguruak eskatzen ditu, tragedia humanitarioak saihesteko

Egun honetan, Arartekoak bat egiten du Nazio Batuen Erakundeak migrazio-bide seguruak eta erregularak ezartzearen alde egindako aldarrikapenarekin, milaka pertsonak egin behar izaten dituzten lekualdaketetan bidegabeki nozitzen dituzten etengabeko ezbeharrak saihesteko. Era berean, eskatzen du erantzun humanitarioa eman dakiola migratzaileek bizi duten egoerari.

Arartekoak Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala bete dadin defendatzeko konpromisoa berresten du. Adierazpenean ezartzen du gizon-emakume guztiak libre jaiotzen direla, duintasun eta eskubide berberekin. Horregatik, premiaz garatu behar dira berriazko neurriak, ezinbestean beren bizitokiak utzi behar dituztenei arreta emateko.





ARARTEKOAK IKASTARO BAT ANTOLATU ZUEN ETXEBIZITZA IZATEKO ESKUBIDEAZ ETA HORI BIZITEGI-BAZTERKETA LARRIKO EGOERA BATZUETARA PROIEKTATZEAZ

EHUren uda ikastaroen XLII. edizioan, Arartekoak honako izenburuko ikastaroa antolatu zuen, Donostiako Miramar jauregian: “Etxebizitza izateko eskubidea eta hori bizitegi-bazterketa larriko edo bizitegi-prekarietateko egoera batzuetara proiektatzea. Botere publikoen esku-hartzea Euskal Autonomia Erkidegoan”.

Ikastaroaren hasiera-ekitaldian Manuel Lezertua arartekoak esan zuenez, *“etxebizitza ohiko bizileku gisa galtzea, etxebizitza eskuratzeko zailtasun handiak izatea edo bizitokirik ez izatea bera ardura eta zorroztasun handiz tratatu behar dituztela politika publikoak egiten parte hartzen dutenek, eragin handia baitute pertsonen bizitzan eta haurren pobrezia prebenitzean, belau-naldien arteko desberdintasunei aurre egiteko modu bakarra delako”*.

Arartekoaren ikastaro honek helburu hauek izan zituen: egoera zehatzetan finkatzea arreta, kasurik larrienetarako beste bizileku bat eskura izateak dakarren erronka aztertzea, etxegabeen egoerak arintzeko politika publikoak ezagutzea, eta etxebizitza bat eskuratzeko eta mantentzeko bizitegi-prekarietatea duten pertsonen arazoak eztabaidatzea.

ESTATU ESPAINOLEKO DEFENTSA-ERAKUNDEEN KOORDINAZIORAKO XXXVI. JARDUNALDIAK



Jardunaldietan, “Gure ahotsa” haur eta nerabeen topaketan parte hartu zuten neska-mutilek beren lanaren ondorioak aurkeztu zituzte; horrela, koordinazio-jardunaldietako hausnarketa eta eztabaida-prozesu orokorrean lagundu zuten

“Haurrak babestea, beraien eskubideak babestuz: defentsa-erakundeen erronka” izenburua zutela, Bartzelonan egindako jardunaldi horietan aztertu zen inplikaturako sistema publikoak zer erantzun ematen ari zaizkien babesgabetasun arriskuan dauden haur eta nerabeei. Topaketa honek osatzen osatu zuen defentsa-erakunde guztiek 2023an barrena egin zuten analisia eta diagnostikoa, eta, aldi berean, bukaera eman zion, erakunde horietako titularrek sinaturiko erakunde-adierazpen baten bidez.

Koordinaziorako jardunaldien historian lehenbiziko aldiz, **ateratako ondorioetan aintzat hartu ziren adingabeen hitza eta iritziak**, Bartzelonako topaketaren aurreko hilabeteetan Arartekoak antolatutako lantegian asmo horrekin bildutakoak. Adingabeek analisirako egin zituzten ekarpen eta proposamenak oinarritzat hartu ziren, defentsa-erakundeetako profesionalen taldeek egindakoarekin batera, herri defendatzaileen ondorioak eta “Prebenitu babesteko” adierazpena elikatzeko.

Bideo bat ere aurkeztu zuten. Bertan erakusten dira ondorioak ateratzeko egin zuten hausnartze-prozesua, *ilusioa, gogoia...; eta defentsa-erakundeei eskatzen diete haur eta nerabeen eskubideen alde etengabe lanean jarrai dezatela. Beraiek dioten bezala, “eskatzen diegu kontuan har gaitzaten” eta “lanean jarrai dezaten, haur eta nerabeen eskubideak defendatzeko”*.

“LEGEEN GEROA-EL FUTURO DE LAS LEYES” MINTEGIA

Eusko Legebiltzarrak eta Arartekoak mintegia egin zuten izenburu honekin: “Etorkizuna eraikitzen. Herriaren defentsa-erakundeei buruzko hausnarketa”. Topaketa horretan, autonomia erkidegoetako eta Europako hainbat herriaren defendatzailek, Eusko Legebiltzarreko ordezkari batzuek eta eremu akademikoko zenbait adituk hartu zuten parte. Hausnarketa-gune bat izatea zuen helburutzat, orain arte ibilitako bidea aztertzeko eta nazioarte mailan ere dauden askotariko tresnak partekatzeko.

Lezertuak Arartekoaren ikuspegia partekatu zuen defentsa-erakundeek, herritarren eskubideak bermatzen dituztenez, gaur egun izan beharko luketen jarrerari eta eginkizunari buruz. Horretarako, kontuan hartu ditu gizartearen eskaera berriak eta aldaketa juridikoak, batez ere Europar eta nazioartean, izan ere, aldaketa horiek eragina dute pertsonen eskubideak defendatzeko erakundeen izaeran eta zereginetan. Arartekoak agerian jarri ditu legegileak kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsuetako batzuk XXI. mendeko Europako defentsa-erakunde baten mandatua definitzeko orduan, alegia, zer-nolako irismena, eskumenak, boterea eta eginkizunak izango lituzkeen.

Eusko Legebiltzarrak 1985ean Arartekoaren Legea onartu zuenetik, erakunde honen lana aldatuz joan da, gizarte- eta lege-aldaketekin batera. Horregatik, ia 40 urte ondoren, Lezertuaren ustez, lege-esparru aurreratuagoa behar da erakunde honentzat, *“gertatu diren aldaketa sozial eta juridiko garrantzitsuen ondoriozko erronketara egokituagoa, horiek modu esanguratsuan eragiten baitute herritarrengan eta eskubideen arloan dituzten itxaropenetan”*.



ARARTEKOA DEFENTSA-ERAKUNDEEN EUROPAKO SAREAREN URTEKO BILTZARRERA JOAN ZEN

Edizio honetan, Europako defentsa-erakundeek dituzten erronkez hausnartu zuten parte-hartzaileek

Manuel Lezertua arartekoa Defentsa-erakundeen Europako Sarearen (ENO) urteko biltzarrean parte hartu zuen. Bruselan egin zen, Europako Parlamentuaren egoitzan, izenburu honekin: “Egungo erronkei aurre egiteko ikuspegiak”.

Jardunaldi horiek urtero antolatzen ditu Europako defentsa-erakundeak eta Europa osoko nazioetako eta eskualdeetako defentsa-erakundeetako titularrak elkartzen ditu. Erronka berri horien artean, honako hauek jorratu zituzten: Europar Batasunean migrazio-fluxuak kudeatzea eta horiek oinarritzko eskubideen estandarretara egokitzea; administrazio publikoak nola erabiltzen ari diren adimen artifiziala, eta horrek dakartzan abantailak eta arriskuak.

ARARTEKOAK ETA EHUK ANTOLATUTAKO JARDUNALDIA, GIZA ESKUBIDEEN ADIERAZPEN UNIBERTSALAREN 75. URTEURRENA DELA ETA

Efemeride hori dela eta, Arartekoak eta Euskal Herriko Unibertsitateko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unesco katedrak, jardunaldi hau antolatu zuten: “Giza Eskubideak Euskadin. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Euskadiri buruz egindako kontrol-jardueraren balantzea”. Jardunaldi horretan esku hartuko zuten María Elosegui Giza Eskubideen Europako Auzitegiko magistratuak, Fabián Salviolik egia, justizia, erreparazioa eta berriz ez gertatzeko bermeak sustatzeko Nazio Batuetako errelatore berezia bera eta Joana Abrisketa, Xabier Arzoz, Alejandro Saiz eta Ana María Salinas katedradunek.

IALC ELKARTEAREN 2023KO URTEKO KONFERENTZIA ETA BATZAR OROKORRA

Manuel Lezertua arartekoa IALCen (Hizkuntza Komisarioen Nazioarteko Elkarte) 2023ko Urteko Konferentzia eta Batzar Orokorrean parte hartu zuen. Diputatuen Kongresuko Erregelamenduan hizkuntza koofizialen erabileraz egin diren azken aldaketak azaldu zituen. Lezertuak berriki jazotako gertakari hau aipatu zuen: 45 urtean espainierazko demokrazia-sistema izan ondoren, Kongresuko diputatuek espainieraz ez ezik, Estatu hiru hizkuntza koofizialeko edozeinetan ere esku har dezake jada: euskaraz, katalanez eta galizieraz.

Ararteko erakundeak aktiboki parte hartzen du IALC elkartearen, izan ere, legeak erakunde honi ematen dizkion betekizunen artean dago euskara eta gaztelania hizkuntza koofizialak izatetik eratortzen diren herritarren hizkuntza-eskubideak babestea. Lan hori beste herrialde batzuetako antzeko erakundeekin batera egiten du, eta erakunde horiek IALC elkartearen bilduta daude.

“SHAME - EUROPEAN STORIES” ERAKUSKETA



Manuel Lezertua arartekoa “Shame - European stories” erakusketaren inaugurazioan izan zen, Bilbon. Justice Initiative programaren, Guido Fluri fundazioaren eta Infancia Robada elkarte nazionalaren ekimen bat da hori, eta haurtzaroan eta nerabezaroan hainbat eremutan sexu-abusuen biktima izan ziren haur eta nerabeen argazkiak eta lekukotzak biltzen zituen.

Bere mintzaldian, arartekoak biktimen mina ohoratu nahi izan zuen, gertatutakoa aintzatetsiz. Adierazi zuenez, “Arartekoa bezalako erakunde batentzat, eskubideen urratze larri hori ezin da entzuteko jarrera hutsean geratu. Kontakizun horiek bultzatzen diote berriro gerta ez daitezkeen eskatzera, indarkeriarik gabeko haurtzaroak bermatzeko moduak bilatzera eta kaltea konpontzera, baldin eta, zuhurtasun-neurri guztiak hartu arren, hura gertatzen bada”. Horrela, horren erakusgarri onenetako adibidetzat, Lezertuak maiatzaren 18ko 2/2021 Gomendio Orokorra aipatu zuen, non Arartekoak jarduteko jarraibide zehatzak proposatzen dituen Euskadin haur eta nerabeen kontrako sexu-abusuak eta sexu-esplotazioa gertatzen direnean.

URRIAK 10. OSASUN MENTALAREN MUNDUKO EGUNA



FEDEAFESek antolatutako ekitaldi batean parte hartu zuen Arartekoaren ondokoak, eta nabarmendu zuen osasun mentalari buruzko jardueraren plan espezifiko bat barne hartzen duen osasun-estrategian sakontzen jarraitu behar dela, laguntza soziosanitarioko zerbitzu-sare egoki batekin

Urriaren 10ean Osasun Mentalaren Munduko Eguna ospatzen da, Osasun Mentalaren Munduko Federazioak sustatua, arazo psikikoak dituzten pertsonen beharrak ezagutarazteko. Urtemuga hori dela medio, FEDEAFESek (Buru Gaixotasuna duten pertsona eta senide elkartearen Euskadiko federazioa) ekitaldi bat burutu zuen Gasteizen, eta bertan parte hartu zuten Inés Ibáñez de Maeztu arartekoaren ondokoak eta beste erakunde batzuetako ordezkariak.

Bere mintzaldian, arartekoaren ondokoak esan zuen “inori ez zaizkiola kendu behar bere giza eskubideak edo inor ez dela utzi behar bere osasunari buruzko erabakietatik kanpo osasun mentaleko arazo bat izateagatik”.

Nabarmendu zuenez, “Horretarako, osasun mentalari buruzko jardueraren plan espezifiko bat barne hartzen duen osasun-estrategian sakontzen jarraitu behar da, laguntza soziosanitarioko zerbitzu-sare egoki batekin; gaixotasun mentalari lotzen zaion estigmaren kontra borrokatzen jarraitu behar da; eskola inklusibo eta osasungarriak sustatu behar dira; eta zerbitzu espezializatuak, diziplina anitzekoak eta ikuspegi komunitarioa dutenak garatu behar dira”.

Orobat, Ibáñez de Maeztuk azpimarratu zuen Arartekoak beti arreta berezia eskaini izan diela gaixotasun edo nahasmendu mentala duten pertsonen, eta hala egiten jarraituko duela, bereziki kalteberak direlako.

ERAKUNDEARTEKO III. HITZARMENA, EMAKUMEEN KONTRAKO INDARKERIA MATXISTAREN BIKTIMEI EMANDAKO ARRETA KOORDINATZEKO

Manuel Lezertua arartekoak sinatu zuen hitzarmen horrek erakundeen arteko lankidetzarako esparru aurreratu bat izan nahi du, indarkeria matxistaren biktimei diren emakumeak eta neskatu-mutikoak hobeto artatzeko eta babesteko

Arartekoak hitzarmen honen sinatzaile gisa erabat parte hartzea lagungarria izango da, hemendik aurrera, berariazko lankidetzajarraibideak ezartzeko eta, haien bitartez, Arartekora iristen diren herritarren keza eta kontsulten gaineko izapideak bizkortzeko eta indarkeria matxistaren biktimei diren emakumeen eta neskatu-mutikoen eskaerak ho-

betu bideratzeko, beren konplexutasunean, genero-ikuspegiarekin eta giza eskubide moduan, horiek artatu behar dituzten erakunde eta administrazioek irizpide komunak erabiliz.

Hitzarmena sinatu ondoren Manuel Lezertua arartekoak esan zuenez, *“Hitzarmen berri hau ezinbestekoa da indarkeria matxistaren biktimeizako arreta hobetzera bideratuta dagoen erakundeen arteko lankidetzan aurrera egiteko”*.

Lezertuak hauxe gaineratu zuen: *“Arartekoak berri egiten du emakumeen eta neskatu-mutikoen giza eskubideak defendatzearekin duen konpromiso irmoa. Apustu egiten du, argi eta garbi, indarkeria matxistatik gabeko euskal gizartearen alde. Eta erakunde sinatzaile guztiarekin lankidetzan aritzeko borondatea erakusten du, atsedetik hartu gabe, helburu nagusi hori lortzeko”*.



EUSKAL KAZETARITZA SARIAK 2023

Manuel Lezertua arartekoa Bilbon izan zen Euskal Kazetaritza Sariak 2023 ekitaldian, Kazetarien Euskal Elkargoak eta Elkarteak antolatuta, Euskadiko komunikabideetako arduradunekin lankidetzarekin. Arartekoak Adierazpen Askatasunaren José María Portell Saria eman zion Jordi Évole kazetari katalanari, *“No me llame Ternera”* bere azken lanak sortutako polemikaren ondoren.

Adierazpenaskatasuna sistema demokratiko ororen oinarritzko zutabea da. Espektror zabaleko eskubidea, funtsezkoa dena inguratzen gaituen munduari buruzko ideiak, iritziak, pentsamenduak eta ezagutzak zabalteko. Egijara hurbiltzeko ezinbesteko tresna, arretaz ezkutaturako delituak eta gehiegikeriak azaleratzeko. Saria ematerakoan, Lezertuak esan zuenez, *“Évoleren lana, bere dokumentalak, bere elkarrizketak, adierazpen askatasunaren ariketa osasuntsu eta zentzudunaren adibide bikainak dira, demokrazia aske batean”*.



EITB MARATOIA: MINBIZIAREN AURKA AUKERA BERRIAK

Minbiziaren aurkako ikerketarako dirua biltzea izan zen EITB Maratoia 2023ren helburua, eta Manuel Lezertua arartekoak parte hartu zuen bertan, EITBren Bilbo-ko egoitzako dei-zentrotik telefonoa hartzen. Minbizi guztioi eragiten digun gaixotasuna da. Euskadiko lehenengo heriotza-kausa da, 45.000 pertsona baino gehiagorekin, eta 14.000 kasu diagnostikatzen dira urtero. Pertsonen %74k onartzen du gertuko norbait duela minbiziarekin lotuta.

EITB Maratoia duela 22 urte hasi zenetik, euskal herritarren elkartasunari esker, 7 milioi euro baino gehiago bideratu dira 119 ikerketa-proiektutarako: minbizi (haurrak, birrikak, bularra, besteak beste), iktusa, gaixotasun neurodegeneratiboak, gaixotasun kardiobaskularrak, Alzheimerra, autismoa, desgaitasun intelektuala, gaixotasun mentala, hartutako garun-kaltea, transplanteak edo gaixotasun arraroak, besteak beste.

XIV. TRUKAKETA ETA SENTSIBILIZAZIO JARDUNALDIAK, ARGIA FUNDAZIOAK ANTOLATUAK

Nahasmendu mentalagatiko desgaitasuna edo desgaitasun psikosoziala duten pertsonen eskubideak

Manuel Lezertua arartekoak jardunaldi horien hasiera-ekitaldian parte hartu zuen. Jardunaldiok Argia Fundazioak antolatu zituen, gun bat sortu nahi baitu Espainian desgaitasuna duten pertsonen eskubideak zenbateraino ezartzen diren aztertu eta hausnartzeko. Eskubide horiek desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haiek gizarteratzeari buruzko Lege Orokorrean jasota daude.

Euskadin desgaitasun psikosoziala edo nahasmendu mentala duten pertsonen eskubideak bermatzeko ikuspegia izan zuen ardatz nagusi arartekoaren mintzaldiak. Bertan, arartekoak nazioarteko eta Estatuko araudia erreparatu du. Nabarmendu zuen zein garrantzitsua den hirugarren sektorearen lana eta gizar-tearen eta botere publikoen sentsibilizazio eta inplikazio handiagoa sustatzea, desgaitasun mentala duten pertsonen eta aitortu zaizkien eskubideak erabat baliatzearen artean dauden oztopoak kentzeko ahaleaginean.

Nahasmendu mentalagatik desgaitasuna horren aldean aniztan duten pertsonak bereziki ahulak dira eta, horregatik, Ararteko erakundeak beti arreta berezia eskaini izan die eta eskaintzen jarraituko du.

“GURE AHOTSA” HAUR ETA NERABEEN TOPAKETA

Arartekoak “Gure ahotsa” haur eta nerabeen lehen topaketa antolatu zuen Bilbon. Bertan, 14 eta 17 urte bitarteko 17 neska-mutilek parte hartu zuten, Estatuko zazpi erkidegotatik etorritakoek: Andaluzia, Aragoi, Kanariak, Katalunia, Valentzia, Euskadi eta Nafarroa.

Topaketa hori Herriaren Defendatzaileen Koordinaziorako XXXVI. Jardunaldien aurretik egin zen, zeinetan aurten babesgabetasun arriskuan dauden haur eta nerabeen gaia jorratuko bait zen. Helburua hauxe izan zen: haurrei eta nerabeei eztabaidagaiaren inguruan parte hartzeko gun bat ahalbidetzea, haien ahotsa eta iritziak jasotzea eta horiek koordinazio jardunaldien hausnarketa- eta eztabaida-prozesu orokorrean sartzea. Horretarako, parte hartzaileek beraien bizipenetan oinarritu ziren, eta haur eta nerabeek erabat garatzeko zer behar duten hausnartu zuten. Beraien lehen gogoetak Agintzari erakundeak lagundutako gazte batzuen zuzeneko testigantzekin aberastu ziren; haiek beren esperientzia kontatu zuten, umetan babesgabetasun-egoerak bizi izan baitzituzten.

Orobat, Rafael Benito psikiatra, psikoterapeuta eta EHUko irakaslearen eskutik, neurozientziaren ikuspuntutik ikuspegi kualifikatua entzun ahal izan genuen babesgabetasunak berori nozitzen duten pertsonengan duen eraginari buruz. Era berean, haur eta nerabeen eskubideez hausnartu zuten, zehazki, babesik gabeko pertsonentzat arriskuan dauden eskubideez.

Parte-hartzaileek iradokizunak eta ekarpenak egin zituzten, defentsa-erakundeek gai honen gainean oro har hausnartzen laguntzeko: nola hobetu daitekeen babesteko gizarte-zerbitzuen sistemak ematen duen arreta, arrisku-egoerei erantzuteko.

¡NUESTRA VOZ!
REFLEXIONES DE CHICAS Y CHICOS
SOBRE INFANCIA Y ADOLESCENCIA EN
RIESGO DE DESPROTECCIÓN

ENCUENTRO ENTRE
DEFENSORIAS DEL PUEBLO
26-27-28 JUNIO 2023
BILBAO

ORGANIZA: ararteko

NERABEEN KONTSEILUKO NESKA-MUTILEK ERAKUNDEA HOBETZEKO HAUSNARKETAK ETA PROPOSAMENAK AURKEZTU ZITUZTEN, BEREN ESKUBIDEAK HOBETO DEFENDATZEKO

Beraien proposamenak kontuan har ditzala eskatu zioten Arartekoari, haur eta nerabeen eskubideen defentsa indartzeko. Orobat, Nerabeen Kontseiluaren balioa nabarmendu zuten, beren iritzia adierazteko eta herritartasun aktiboa gauzatzeko partaidetza-organoa baita

Azaroak 20an, Nazio Batuen Batzarrak 1989an Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena onartu izana ospatu zen. Testuinguru horretan, Manuel Lezertua arartekoak eta Inés Ibáñez de Maeztu bere ondokoak harrera egin zioten Arartekoko Nerabeen Kontseiluari, bertako kideen hausnarketak eta urtean zehar egindako lanaren emaitza aditzeko eta partekatzeke.

Nerabeen Kontseiluak, erakundeko haur eta nerabeen eskubideen arloan aholkuak emateko organoa denez, urtero biltzen du bere lanaren emaitza eta, azken batean, neska-mutilen hitza eta azaltzen zaizkien gaiez duten iritzia. 2023an ekarpen horiek garrantzi berezia hartu zuten, izan ere, haur eta nerabeen eskubideak babesteko orduan Arartekoa hobetzeko egin dira. Halaxe da, 2023 urtean, Europako beste partaidetza-kontseilu batzuek bezalaxe, kontseilu horrek sakon aztertu zituen eskubideak defendatzeko erakundeak eta horiek indartzeko premia, haur eta nerabeen eskubideak hobeto defenda daitezten. Haurren Nazioarteko Eguna os-




patzeko eta aldarrikatzeko izaerarekin bat etorritz, Arartekoko Kontseiluko kideek ahotsa goratu zuten beren herritartasun aktiboa erakusteko, zeinak konpromisoa baitu haur eta nerabe guztien ongizatearekin eta eskubide-defentsarekin.

IKASLEEN BISITAK ETA GASTEIZTXO PROGRAMAREKIKO LANKIDETZA

Haurren eskubideei buruzko ezagutza hedatzea eta gaztetxoaren artean giza-eskubide guztiak errespetatzen dituen kultura bat sortzea Arartekoaren jarduketalarroetako bat da, haurrei eta nerabeei dagokienez. Hori dela eta, jarraitzen dugu lankidetzan Gasteizko Udaleko Hezkuntza Sailarekin, **Gasteiztxo Albistegia** egiteko lanetan. Hainbat ikastetxetako ikasleek Arartekoaren egoitza bisitatzen dute eta erakundearen jarduerari buruzko datu eta informazioak biltzen dituzte, gero, irrati- edo telebista-programa bat, edo aldizkari bat prestatzeko. EAEko institutu eta beste hezkuntza-zentro batzuetako ikasle-taldeek ere bisitatzen gaituzte. Besteak beste, **Iurreta LHII** ikasleak genituen 2023an.



Haur eta NERABEENTZAKO BULEGOA



► **Kexa-kopurua** Berriahaurrak eta nerabeak aipatu dituzten edo horiek tartean egon direla adierazi duten kexa-espeditentzari dagokienez, 2023an, guztira 802 espediente izan dira, hau da, Arartekoan aurkeztutako kasu guztien %20,58. Nabarmentzekoa da kexa-kopuruak gora egin duela 2022rekin konparatuta (553; %45 gehiago), Hezkuntzaren arloko erreklamazioen gorakadarekin zuzenean lotuta baitago. Horietako sei adingabe batek aurkeztu zituen.

► **Atal materialak:** hezkuntza-esparruari lotutako gaiak izan dira ohikoenak (%55,2), eta haurren bizitzako baldintza materialei buruzkoek gertutik jarraitu diete (%23). Gero, %9 familiei laguntzeko politikei eta zerbitzuei dagozkien, eta %5, azkenik, babesik gabeko haurrentzako zerbitzu sozialei dagozkienak.

► **Bizitza-maila egokia izateko eskubidea:** diru-sarrerak bermatzeko politika publikoak izan daitezke desabantaila-zikloa hausten lagunduko duten haurrentzako inbertsio-neurrietako bat. Erreklamaturako gairik berrienak diru-sarrerak bermatzeko errentaren (DSBE) eta bizitzeko gutxieneko errentaren (BGDS) arteko harremanarekin izan zuten zerikusia. DSBEa eta EPOa ukatzeari, eteteari eta azkentzeari eragiten dieten gaietan, Arartekoak Gomendio orokorra bete



behar zela esaten jarraitu zuen; gomendio hori, izan ere, adingabearen interes gorena politika publikoetan eta, bereziki, diru-sarrerak bermatzeko sisteman derrigorrez kontuan hartzeari buruzkoa da. Etxebizitza egokia lortzeari dagokienez, aurreneko nabarmendu behar dira etxebizitza bat lortzeko arazoak, eraikinak ez baitu gaintitzen familia-unitateko kide bakoitzeko 15 m²-ko ratioa, eta adingabeak dituzten familiek alokairuko etxebizitza bat eskuartzeko premia dagoelako.

► **Heziketarako eskubidea:** EAEko hezkuntza-sistemarekin lotutako kexak nabarmen hazi ziren 2023an, aurreko urtean baino bi aldiz gehiago. Ekitatearen alde egiteko eta ikasleen bereizketaren aurka borroka egiteko neurriak praktikan jartzeak erreklamazio-kopuru handia ekarri zuen. Gainerako arrazoiak ezagunagoak dira: hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleentzako baliabideak ez egotea edo berandu ematea, eskola-jazarpena, itunpeko ikastetxeetan kuotak kobratzea, garraioan eta eskola-jantokiak ezustekoak izatea edo erlijio islamikoa irakastea.

► **Indarkeria eta tratu txar mota guztietatik babestua izateko eskubidea:** 2023an, babesgabetasun arineko edo neurritsuko egoerei emandako arretaren ezagutza sakon aztertu zen, eta horren ondorioek honako hauek adierazi zituzten: udaleko zerbitzu sozialak hazkuntzarako

laguntza gisa ez aitortzea, baliabideen eta espezializazioaren gabezia, esku-hartzearen eraginkortasunaren inguruko zalantzak, esku-hartzearen zatiketa, eta sistemaren plangintzarako zailtasunak, bai eta ebaluaziorako eta ondoriozko hobekuntzarako zailtasunak ere. Hala ere, esperientzia onak ere badaude, hala nola haurrentzako tokiko mahaiak, prebentzio-programak, diziplina anitzeko balorazioak, eguneko zentroak edo ebidentzietan oinarritutako programak. Erreferentziatzko familiartekorik ez duten adingabe migratzaileei ematen zaien arretan, Arartekoaren esku-hartzea prozesuaren bi muturretan zentratu zen, berriz ere: harreran — babes-sistemara sartzeara — eta emantzipazioan — sistematik ateratzea —.

- ▶ **Familia izateko eskubidea:** Familiei laguntzeko politiken auziak irmoak dira, bai eta 2023an ere: desadostasunak guraso-baimenak eta EAEko administrazio publikoen zerbitzura dauden pertsonentzako beste kontziliazio-neurri batzuk aplikatzeko orduan; familia ugariaren titulua izapidetzeko eta kudeatzeko arazoak, batez ere guraso bananduen kasuan. Epailearen aginduaren bidezko familia-elkarguneetan, kexaren helburu nagusiak zerbitzu horiek epaileek baloratzeko ematen dituzten txostenen edukia izaten jarraitzen du. 2023ko jarduketarik berrienak Haurreskolak Partzuergoaren mende dauden haur-eskolekin lotutakoak izan dira, doakoa izatea bermatzen duen hartutako konpromisoaren ondorioz.
- ▶ **Osasunerako eskubidea:** EAEko osasun-sistemaren tentsio-egoerarekin lotutako kexak nabarmentzen dira, bereziki lehen mailako arreta eta espezializatua. Bai eta osasun mentalararekin ere: elikadura-portaeraren nahasmenduak dauzkaten laguntza-premiak, haurren eta gazteen nahasmendu larrietan espezializatutako egonaldi ertain eta luzeko zentroetara deribatzen diren eskarriak eta patologia dualaren jorraketa.

▶ **Umeen eskubideak justiziaren arloan:** Aurten ere, erregistro zibiletan nahitaezko aurretiko hitzorduaren sistemaren bidez izapideak egitearekin lotutako erreklamazioak nabarmentzen dira, operadore juridikoekin elkarlanean ebatziak. Gurasoak kartzelan dituzten haurren eta nerabeen kasuan, honako hauek izan dira auzirik garrantzitsuenak: familia- eta bizikidetzakomunikazioak (horren inguruan, gomendio bat egin zitzaien dagokion sailari), eta seme-alabekiko harremana mantentzeko zailtasuna edota ezintasuna, Euskaditik kanpoko kartzeletatik edo kartzelara lekualdatzeagatik.

▶ **Jolasteko, atsedean hartzeko eta jarduerar artistikoak eta kirol-jarduerak egiteko eskubideak:** Eskola-kirola Gipuzkoako Aldundiak adin jakin batzuetarako eskatzen duen kirol anitzarekin lotzeko derrigortasuna izan zen arlo horretan jasotako erreklamazioen erdiaren mamia. Gainerako erreklamazioek gai ugari adierazten dituzte, adibidez eskola-kirolaren sistemaren antolaketa-rekin izandako desadostasunak, jarduerak egiten den kiroldegietako arazoak eta entrenatzaileekin izandako tirabirak.

▶ **Diskriminaziorik ez jasateko eskubidea:** Nahiz eta pertsona guztien berdintasuna eta duintasuna juridikoki aitortzen den, euskal gizartearen diskriminazioa ikusgai dagoen egoerak ematen dira oraindik, eta horrek pertsona edo talde jakin batzuei eragozten die beren gaitasunekin bat datorren bizitza-proiektu bat garatzea. Hori aplikatu ahal zaie kasu batzuetan diskriminazio anizkoitza edo metagarria jasaten duten haurrei eta nerabeei, haien adingabetasunari gehitzen baitzaizkie diskriminaziorako bide izan daitezkeen beste ezaugarri batzuk, hala nola etnia, jatorria, sexu-orientazioa eta abar.



ZURE ESKUBIDEAK DEFENDATU BEHARRA DAUKAZU?

Arartekora jo dezakezu

- ▶ Euskal administrazio publikoak zurekin gehiegikeriaz, legez kanpo, nahikeriaz, bereizkeriaz, oker edo zabarkeriaz jokatu duen ikertzeko.
- ▶ Udalak, Aldundiak edo Eusko Jaurlaritzak oker jokatu badu, zure arazoa konpon dezan.
- ▶ Guztion onerako hobekuntzak gomenda ditzan.

Zer da Arartekoa?

- ▶ Euskadiko Herri Defendatzailea da.
- ▶ Erakunde independentea da.
- ▶ Dohain eskaintzen den zerbitzua.

Zer egiten du Arartekoak?

- ▶ Pertsonak babestu euskal administrazio publikoen kontra.
- ▶ Herritarren eta administrazioaren arteko bitartekari izan.
- ▶ Legez kontrako egoerak galerazteko begiratu eta lan egin.
- ▶ Konponbideak proposatu eta legeak aldatzera bultzatu.
- ▶ Eusko Legebiltzarrari bere lanaren berri eman.

Noiz jo Arartekora?

- ▶ Administrazio batekin edo haren menpeko zerbitzu publiko batekin arazoren bat duzunean.
- ▶ Zerikusirik duen administrazioaren aurrean erreklamatu ondoren, erantzunik edo konponbiderik lortu ez duzunean.
- ▶ Momentu horretatik hasita, urtebeteko epearen barruan

Noiz ez jo Arartekora?

- ▶ Pertsona partikularren arteko auzia denean.
- ▶ Gaia auzitara eraman denean.

Nola egin kexak?

- ▶ Norberaren datuak (izen abizenak, helbidea eta telefono zenbakia), agiri baliagarrien kopia eta, ahal denean, kexaren arrazoia azaltzen duen idaztia emanez.
- ▶ Arartekoari zuzendutako gutunaren bidez (Prado, 9 - 01005 Vitoria-Gasteiz).
- ▶ Internet bidez: www.ararteko.eus
- ▶ Norbera hiru bulegoetako batera joanez.

Nora joan?

Harrera zuzeneko bulegoak

Arabari

Prado, 9 • 01005 Vitoria - Gasteiz
Tel.: 945 13 51 18 • Faxa: 945 13 51 02

Bizkaian

Albia eraikina. San Vicente, 8 - 8. solairua
48001 Bilbao
Tel.: 944 23 44 09

Gipuzkoan

Arrasate, 19 - 1.
20005 Donostia - San Sebastián
Tel.: 943 42 08 88
Dei iezaguzu argibide gehiago behar baduzu



Deskargatu
2023 urteko
memoriaren
bertsio digitala

